ARRASATE: 36KO GERRAN FUSILATUEI OMENALDIA DOMEKAN /5

Goienka2a

EGUBAKOITZA • 2005eko ekainaren 10a • V. urtea • 203. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

DEBAGOIENA

Ibarreko 40 erretiratu boluntario atletismo kopan /5

GLORIA CASTAÑOS

"Eskola txikiak bizirik badaude, herriak ere bizirik daude; horixe da gure filosofia" /7

Goienka2a

MUNDUMIRA

MUNDUKO KULTUREN JAIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Hondartzak garbitzeko 850.000 euro erabiliko dituzte /4

JOKIN ETXEBARRIA

Denon Errealekoak Oñatin eta Bergaran

Miguel Fuentes eta Denon Erreala plataformako hautagai nagusiak Oñatin izan ziren atzo, eta gaur Bergaran izango dira. Realeko hauteskundeetara aurkeztu diren hiru plataformak bete-betean dira hauteskunde kanpainan. Fuentes izan da gure ibarrera etortzen lehena, eta inkestek diotenez hura da faboritoa hauteskundeak irabazteko. Etorkizuneko Realerako proposatzen dituzten puntu nagusiak aurkeztu zituzten Oñatin, Realeko hainbat bazkide, akziodun eta zaleren aurrean, Aloña Mendiko egoitzan. Fuentes, Idigoras, Martinez eta Zamora izan ziren Gerardo Eskartza Oñatiko kirol teknikariarekin batera. Gaur 19:00etan Bergarako Pertxa elkartera hurbilduko dira. **/10**

ASTEKO GAIA: AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA

Aizkorriren izendapena, gertuago

Aizkorri-Aratz gunearen parke natural izendapena azken fasean dago. Joan den asteko batzar baten, parkeko diseinua finkatuta geratu da, azken orduko aldaketarik gertatzen ez bada, eta Jaurlaritzak espero du irail parterako parkea izendatuta geratzea.

Parkearen zati handiena Debagoieneko lau herriren lurrek osatzen dute: Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagaren lurrek, hain zuzen. Baina, izendapen fasea ia bukatuta egon arren, proiektuak luze joko du oraindik; izan ere, aurrerantzean kudeaketa finkatu behar da. Hor ikusiko da herri bakoitzari —udalei eta erabiltzaileei— zelan eragiten dion parkeak. **/2-3**

Bergarako zinemazaleek eskatu dute Novedades aretoa zabaltzeko

Bergarako Novedades zinema aretoa berriro zabaltzeko eskatu dio Victoriano Gallastegi alkateari herriko zinemazale talde batek. Martxoaren 28an zinema aretoa itxi zutenetik 3.000 sinadura batu dituzte. Martitzenean azpimarratu zutenez, "zerbitzua behar-beharrezkoa da herriarentzat. Ez dugu etsiko, eta zinema eskatzeko mobilizazioak egiten jarraituko dugu". **/6**

ARRASATE

Uribetxeberria eta Agirre askatzeko eskatu dute

Josu Uribetxeberria eta Jon Agirre presoak askatzeko eskatu dute haien senide, lagun eta beste hainbat debagoiendarrek. Izan ere, preso biak gaixo daude. Uribetxeberriak ezkerreko giltzurruneko minbizia du eta Jon Agirrek gaixotasun asko ditu; besteak beste, diabetesa, hipertentsio arteriala eta fibrilazio artikularra. **/6**

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a

Parke naturala gertuago dago

■ Parkearen diseinua finkatu dute eta irailean bukatuko da izendapen fasea

■ Ibarrak ez du zeresan handirik izan orain arte, baina hurrengo fasean izango du

LEIRE KORTABARRIA

Tramite administratibo batzuk faltan, Aizkorri-Aratz parke naturalaren eremua finkatuta dago azkenean, joan den egubakoitzean Eusko Jaurlaritzak azken aldaketak onartu eta gero. Arduradunek uste dute irail inguruan bukatuko dela hamar urte luze hartu dituen izendapen prozedura konplexua. Arabako 3.892 hektarea eta Gipuzkoako 15.509 hartzen ditu, eta zati handiena Debagoieneko lau herrik osatzen dute: Oñatik (5.336 hektarea, herri hedadura handiena), Eskoriatzak (1.994), Aretxabaletak (1.470) eta Leintz Gatzagak (857).

Laster izendatuko dute gune den hori parke natural. Baina hurrengo fasea izango da erabakigarria: hor finkatuko da parkeak hartzen duen eremu bakoitza zelan erabiliko den. Eta hor izango dute Debagoieneko udal eta herritarrek zeresan handiagoa. Prozesu horrek ere luze jo dezake. Oraingoz, oro har, udalek nahiko iritzi ona dute, nahiz eta zalantzak eta kezkak ere badauden, batez ere inplikatutako lurjabe eta erabiltzaileen aldetik.

IZENDAPEN FASEA

Parke naturala izendatzeak bi helburu ditu: batetik, natura ondarearen babesa; bestetik, herrien garapen sozio-ekonomikoa. Josu Erkiaga Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate zuzendariak dioen moduan, "gune horrek orain baino babes handiagoa izango du, hori da-eta parke naturalaren helburu nagusia, eta hori herritarrek igarri beharko lukete". Aizkorriko inguruko ondare naturala hobeto zainduta egongo da eta horretaz hobeto gozatzeko aukera izango da, hortaz.

Bigarren helburuak, garapen sozio-ekonomikoak, proiektuaren hurrengo fase batera eramaten gaitu. Izan ere, orain bukatzear dagoen fasea da izendapenarena, Eusko Jaurlaritzak eramaten duena, baina gero parkearen kudeaketa finkatu behar da. Hori foru aldundien esku geratuko da. Debagoienaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gestio eta Erabilpen Plana egingo du, eta hor zehaztuko da parkeko gune bakoitza zelan erabili behar den, babes mailaren arabera. Kudeatzaile nagusia Foru Aldundia izan arren, kontsulta-erakunde bat dago, Patronatua, eta hor, inplikatutako udalak, partzoneriak, ikertzaileak, elkarteak... sartuko dira. Haren funtzioa aholkularitza eta laguntza ematea da, eta Debagoieneko erakunde eta inplikatuak hor egongo dira.

BALIOAREN ARABERA SAILKATUTA

Fase horretako ondoriorik garrantzitsuena da parkeko eremu bakoitzaren erabilpena zehaztuko dela. Jaurlaritzaren Natur Baliabideak Antolatzeko Planak zazpi kategoria finkatzen ditu, gune bakoitzaren balio-

nolako ikasketak halako lana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa, Telematika espezialitatea.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazio Sistemak espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
• Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
• Informatikan Ingeniaritza.
• Industri Ingeniaritza.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza.
GOIERRIko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIko Campusa
Lehen zikloa
• Zuzendari Idazkaritza.
Ziklo luzea
• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza.
- Merkataritza Zuzendaritza.
- Erakundeen Kudeaketa.
BIDASOAko Campusa
• Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
- Nazioarteko Merkataritza.
- Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAko Campusa
Lehen zikloa
• Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
• Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
• Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
• Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntzen Psikopedagogia.
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.
Ziklo luzea
• Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.
• Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura.

JARDUNALDI IREKIAK
ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
• Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

LUIS PEDRO PEÑA SANTIAGO

Aizkorriko mendizerrako gune batzuek parkeko babes maila gorena izango dute.

Ibarreko parke zatia, datutan

Hedadura: 19.401 ha
Debagoiena: 9.657 ha (7.522, parke naturala; 2.134, zona periferikoa).
Aretxabaleta: 1.470 ha (947, parke naturala; 523, zona periferikoa).
Eskoriatza: 1.994 ha (438, parke naturala; 1.556, zona periferikoa).
Leintz Gatzaga: 857 ha (780, parke naturala, 77, zona periferikoa).
Oñati: 5.336 ha (4.239, parke naturala, 1.096, zona periferikoa).

JABEGOA
Aretxabaleta: 166 ha, toki-erakundeak; 1.304 ha, pribatua.
Eskoriatza: 16 ha, toki-erakundeak; 199, Gipuz. Foru Ald.; 1.779, pribatua.
Leintz Gatzaga: 584 ha, toki-erakundeak; 273, pribatua.
Oñati: 1.681 ha, toki-erakundeak; 3.655, pribatua.

Babes maila goren edo oso altuko guneak:
Aloña, Orkatzategi, Aloña-Aizkorri-Aratzeko harkaiztiak, Aloña-Aizkorri-Aratz iparraldea, Elgea iparraldea, Aloñako egutereak eta Kurtzebarriko ainubeak.

Izendatu eta gero, kudeaketa fasea hasiko da, eta Aldundiak hainbat iritzi entzungo ditu

Kezkak daude, baina oro har, ibarrerako parkea ona izango dela da iritzi nagusia

Kudeaketa fasean, eremu bakoitzaren erabilpena zehaztuko du Foru Aldundiak

aren eta babesaren arabera. Esate baterako, erreserba-zonan (babes gorena) daude Kurtzeberri, Orkatzategi eta Aloña-Aizkorriko harkaiztiak; hurrengo babes mailan daude Aloña eta Kurtzeberriko zenbait gune. Beste kategoria batzuetan daude Arantzazuko santutegi inguruak (erregimen berezia dutenak) eta Urkuluko urtegia.

Eremu batzuen erabilpena aldatu egingo da, Josu Erkiagak azaltzen duen moduan: "Batez ere babes handiko guneetan, naturabalio handikoak direlako, ezin izango da autoz joan, ehizarik egin...". Aldundiak zehaztuko ditu erabilerak, betiere Jaurlaritzaren ildo nagusiak jarraituta.

ORAINDIK HASIERAN

Oro har, parke naturalaren proiektuak Debagoieneko inplikatuen onespena du. Udalek, oro har, begi onez ikusten dute, baina udal ordezkariek ohartarazten dute proiektua hasieran dagoela eta oraindik bide luzea dagoela. Orain eztabaida ireki behar da, eta orain arte sortu diren zalantzak, kezkak... plazaratzeko zain daude debagoiendarrak.

Esaterako, kontuan hartu behar da Debagoieneko eremuan lurjabe pribatu asko dagoela, eta horiek "kezkatuta" zeuden euren lurretako erabilera mugatuta geratuko zela, udal arduradun batzuek dioskuten moduan. Bestetik, kontuan hartu behar da parkearen lursail guztian denetariko eremuak egon direla eta gauza askotarako erabiltzen direla gaur egun: ehiza eta arrantzarako, turismorako, aisialdirako, ikerketarako, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenerako, baso ustiapenerako... Ez da erraza izango afektatu guztien nahiak edo beharrak asetzea, eta kasu guztietan ezin izango da hala egin.

Bestetik, oraindik ezer zehazterik ez dagoen arren, kasu askotan, lur eremuen erabilpena oraingoaren oso antzekoa izango da.

Ikusteko dago Aizkorri-Aratz parke naturalak zer ekarriko dion Debagoienari. Oraingoz, onerako izango den iritzia da nagusi.

LAUGARREN HANDIENA

Euskal Herriko 4. parke handiena da, eta ibarrekoa da lur gehiena

Aizkorri-Aratz parke naturalak 19.401 hektarea ditu. Euskal Herriko laugarren parkerik handiena izango da. Gipuzkoan, Altzaniako partzuergoa, Zegama eta Zerain ere hartzen ditu; Araban, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga eta Zalduondo. Altzania, Aizkorri, Urkilla, Elgea eta Zaraia mendilerroek osatzen dute.

TURISMOA

Jaurlaritzak azpimarratzen du inguruaren balio turistikoa

Jaurlaritzak azpimarratzen du parkearen "turismo eta aisialdi potentzialaren": mendi-ibilaldiak egiteko balio handikoa, ezaguna izatea, mendizaleendako "oso erakargarria", baliabide historiko eta kulturalak... Hain zuzen, ibarreko udalek uste dute turismoa garatzeko oso ona izan daitekeela izendapena.

Udalek gura dute hitza izatea

Udalek duten ardura bat da kudeaketan zeresana izatea eta Patronatuan hitza edukitzea, hala euren eskaerak egiteko. Era berean, udalek zein beste inplikatuek alegazioak aurkeztu zizkioten proiektuari. Asko mugen gainekoak edo babes maila igotzeko eskaerak ziren. Esaterako, Eskoriatzan nahi dute Aitzorrotz eta Uxar arrokamendiguneen babes maila igotzea; Aretxabaletako Udalak nahi du Urkulu babestuta egotea eta behar ez den moduan erabiliko ez dela ziurta dadila Diputazioa.

Alegazio batzuk dagoeneko onartu dira, baina beste batzuei oraindik ez diete erantzun. Kudeaketa fasean, kontu horiek guztiak zehaztuko dituzte.

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Uda Ikastaroak
Matrikulazioa zabalik!
AKADEMIA BASTIDA
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es
Internet
Informatika
Programazio informatikoa
Mekanografia
Autocad
Photoshop, Freehand
Dreamweaver, Flash
Laguntza eskolak: Ingenieritza, Enpresa Zientziak, Batxilerra, DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

I.A.

Ekainaren 15etik irailaren 30era bitartean, goizeko seietan hasiko dituzte egunero garbiketa lanak Gipuzkoako hondartzetan.

Hondartzak garbitzeko 850.000 euro erabiliko ditu aurten Foru Aldundiak

Egunero 60 langilek jardungo dute lanean Gipuzkoako hondartzetan udan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hastear da hondartza denboraldia eta jendea itsas ertzera gerturatzen ari da. Baina hondartzetan gustura egoteko beraiek txukun egon behar dute. Foru Aldundiak egunotan azaldu du zein lan egiten dituzten hondartzak garbi edukitzeko.

Debagoiendar askok Gipuzkoako kostalderako joera izan ohi du udako egun beroetan. Hondartzara egin ohi dute txangoa eta lehen orduan joanez gero garbi aurki daitezke.

Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegin berezia egiten du udako denboraldian hondartzak txukuntzen. Horretarako, aurten 850.000 euro erabiliko dituzte.

GOIZEAN GOIZ GARBIKETAK

Ekainaren 15etik irailaren 30era bitartean, goizeko seietan hasiko dira garbiketa lanak hondartzetan, goiztiarrenak azaldu aurretik. Lanerako paladun traktoreak eta harri txintxarrak batzeko zein harea bahetzeko makinak erabiliko dituzte. Makinekin jaso ezin daitezkeenak, berriz, eskuz batuko dituzte.

Guztira 60 langile arduratuko dira aurtengo udan hondartzak garbitzeaz. Hondartzetan bi koloretako zabor poltsak ipiniko dituzte: horiak birziklatzeko gauzak botatzeko, eta berdeak gainontzeko zaborrentzat.

HAUTSONTZI BEREZIAK

Ohiko zabor poltsez gain bestelako zaborrontziak ere izango dira hondartzetan. Zigarrokinak eta antzerako zabor txikiak jasotzeko kono itxurako 10.000 plastikozko hautsontzi atera dituzte. Haiek kostaldeko herrietara bidali dituzte eta udalek hartuko dute hondartzetan banatzeko ardura.

Kono itxurako 10.000 hautsontzi banatuko dituzte hondartzetan zabor txikiak jasotzeko

ARABA

Gipuzkoako kostaldera ez ezik, Arabara ere joaten da hainbat udatiar. Landan, Garaion eta Uribarri-Ganboan ere hasi da udako denboraldia.

Bertako zaintza zerbitzuei dagokienez, guztira lau postu egongo direla jakinarazi dute; eta haietan zortzi sorosle izango dira astegunetan eta hamar asteburuetan.

Bestalde, urten izango da berrikuntzarik inguru hauetan. Arabako Foru Aldundiak bizikletak ipiniko ditu alokatzeko Garaion. Gainera, bisita gidatuak eskainiko dituzte urtegien inguruak ezagutzeko. Bisita horiek izango dira Mendixur parke ornitologikora, Garaioko parkera eta Uribarri-Ganboako heze-gunera mendi bizikletaz joateko.

ELKARRIZKETA/NAZIOTASUN EGUNA

IKER DORRONSORO/BAI EUSKAL HERRIARI TALDEKOA

"EHNA poltsikotik atera eta erabili egin behar da"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Domekan ospatuko da Zestoan Naziotasun Eguna, Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatuta. Jaiak eta aldarrikapenak bat egingo duten ekitaldia izango da, eta horren berri eman digu Iker Dorronsoro bergararrak.



Naziotasun Eguna ospatuko duzue domekan. Zertan datza?

Hiru urte dira Naziotasun Eguna ospatzen hasi ginela. Lehenengoan EHNA egitera bultzatu genuen jendea; bigarrenean EHNA sakelatik ateratzera eta aurten EHNA gehiago erabiltzera animatu nahi dugu jendea. Horretarako jai giroan egingo ditugu ekintzak. Ekitaldi nagusi bat ere egongo da, non Udalbiltzakoek parte hartuko duten.

***EHNA eskuan eta ibili munduan* izan zen iazko leloa. Aurten igarri duzue jendeak gehiago erabiltzen duela?**

Txartelak daukana saiatzen da txartela erabiltzen, baina oraindik hainbat erakundetan trabak ipintzen dituzte. Hala ere, pixkanaka erabilera handiagoa da. Ekintza sinbolikoak ere egin ditugu erabilera aldarrikatzeko; Media Markt-en, esaterako.

Aurten zein helburu duzue?

Jendeari esatea erabiltzeko tresna bat dela EHNA, eta ahal den neurrian atera egin behar dela poltsikotik.

"Euskal Herria nazio moduan eraikitzeko tresna bat gehiago da EHNA"

Nola animatuko zenuke jendea Zestoara joateko? Eta EHNA egiteko?

Zestoara joan daitezen esango nieke jai giroan ongi pasatuko duten eguna izango delako.

Bestalde, EHNA ez dutenak txartela egitera animatuko nituzke; Euskal Herria nazio moduan eraikitzeko tresna bat delako. Beraz, nazio hau osatzeko beste pieza bat izango dute esku artean EHNA izan eta erabiliz gero.

Gazteendako euskarazko 'Xabiroi' komikia kalean da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak *Xabiroi* komikia kaleratu du. Gazteentzako komiki gutxi kaleratzen dela eta, euskal komiki-egileek euskaraz sortuak are gutxiago direla ikusita, hutsunea betetzeko sortu dute *Xabiroi*.

Kalitate handiko gidoiak eta irudiak dituzten komikiak izango dira eta ikasturtean hiru ale kaleratuko dituzte.

Xabiroi Euskal Herriko ikastoletan zabalduko dute. Gurean, Bergaran Aranzadin, Arrasaten Arizmendin eta Oñatin Txantxikun banatuko dituzte.

Ibarreko 40 erretiratu, Munduko Atletismo Txapelketan boluntario

Beteranoen txapelketa abuztuaren 22tik irailaren 3ra jokatuko da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan hainbat boluntariok jardungo dute antolatzaileei laguntzen. 650 adinekoak izango dira eta horietatik 40 debagoiendarrak. Atleten aldamenean lanean jardungo dute egun batez.

Abuztuaren 22tik irailaren 3ra bitartean jokatuko da Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketa, Donostian, Hernanin eta Lasarten. Proba garrantzitsu horretan laguntzeko boluntarioak ezinbestekoak dira. Boluntarioak lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpaina ipini zuen abian. Helburua zen 65 urtetik gorako 500 boluntariok lan egitea txapelketan, baina marka hori gainditu eta 650 izango dira laguntza emango duten adinekoak; horietatik 40 debagoiendarrak.

ARTXIBOA

Anoetan, Lasarten eta Hernanin jokatuko dira atletismo probak.

ERRETIRATUEN PROTESTA

Adineko boluntarioek atleten aldamenean egingo dute lan. Agiriak eta dortsalak banatzea, informazio eta atseden guneetan edo dendan egotea eta epaileei laguntzea izango dira, besteak beste, egin beharko dituzten lanak.

Diputazioak taldeak osatu ditu eta talde bakoitzak egun batean egin beharko du lan. Boluntarioendako autobus bereziak ipiniko dituzte goizean joan eta iluntzean bueltatzeko.

Debagoienetik 40 adineko baino ez dira joango. Hain laguntzaile gutxi joatearen arrazoia da ibarreko hainbat erretiratuk erabaki duela protesta egitea, ibarrean garraio publikoarekin adinekoek dituzten arazoak direla eta.

Garraioaren gaineko kezka Foru Aldundiari azaldu eta hark erantzunik eman ez duenez, erabaki dute boluntarioen eskariari ere eurek ez erantzutea.



Eskola txikien jaia domekan Elgetan

Elgetan ospatuko dute domekan Eskola Txikien Jaia. Eskola txiki edo bakunak dituzten Gipuzkoako herri txikietako neska-mutikoak eta gurasoak elkartuko dira. Guztira 2.000 lagun espero dituzte. Eskola txikiek eta herri txikiek bizitzeko duten eskubidea aldarrikatuko dute. Elgetako eskolako guraso elkartekoek egun osoko jaia antolatu dute, eta, besteak, beste egongo dira eskola arteko jolasak, herri bazkaria, Kixka pailazo taldea... Udalak aditzera eman du ezin izango dela aparkatu herriaren erdian. /GOIENKARIA

DEBAGOIENEAN LABUR

Espainiako gerran desagerrarazitakoei eta fusilatuei omenaldia egingo diete

Espainiako gerran fusilatu eta desagerrarazi zituzten debagoiendarrak gogoratuko dituzte aurten ere. Hirugarren urtez omenaldia egingo diete domeka goizean. Meza egingo dute San Joan parrokian 11:00etan eta horren ostean Lau Bide plazan dagoen monolitora hurbilduko dira. Han lore eskaintza egingo dute. Lau Biden dagoen monolitoan desagertutakoen izenak daude. Orain arte jakin direnen izenak dira. Horregatik tokia utzi zuten izen gehiago jartzeko, bazekitelako gehiago azalduko zirela. Aurten bi izen gehiago jarriko dituzte. Izen bat arrasatear batena da eta Elgetako hilobi batean aurkitu zuten. Bestea bergarar batena da eta Iruñean fusilatu zuten. Bergarar horren senitartekoak Gernikan bizi dira.

3,6 milioi euro bideratuko dira Arlabango mendateko errepidea konpontzeko

Arlabango mendatean hainbat konponketa lan egiteko 3,6 milioi euro (600 milioi pezeta) bideratuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain justu ere, behin betiko konponduko dituzte errepide horretan izandako hiru luizik eragindako kalteak eta ezpondak egonkortzeko lanak egingo dituzte. Edozelan ere, lanak ez dituzte hasiko harik eta Eibar-Gasteiz autobidea oso-osorik zabaldu bitartean (2008). Izan ere, Arlabandik egunero 8.000 ibilgailu igarotzen dira.

Odon Elortzak gasifikazio planta proposatu du eta Diputazioak dio ez dela garbiagoa

Oraingo zabortegiei irtenbidea emate aldera, gasifikazio planta bat proposatu du erraustegiaren ordez, Odon Elortza Donostiako alkateak. Alternatiba horrekin, Elortzaren esanetan, hondakindegietara zaborraren %30 baino ez litzateke bidaliko. Diputazioak erantzun dio Elortzari gasifikazio plantak probatzen diharduela oraindik Europan eta ez dela egia erraustegiak baino garbiagoa edo ekologikoagoa denik.

Herrien Arteko Pilota Txapelketako finala Bergaran jokatuko da ekainaren 26an

Donostiako Atano IIIan jokatzekoa zen arren, azkenean Bergaran jokatuko da aurten Herrien Arteko Pilota Txapelketako finala. Izan ere, Gasca kiroldegian lanetan dihardute eta ezinezkoa da Atano IIIa erabiltzea. Asteburu honetan jokatuko dituzte finalerdietako joaneko partiduak Azkoitiak eta Urnietak, eta Donostiak eta Hernanik.

C&C AKADEMIA
Matrikula zabalik!
LLONGUERAS
IRAKASKUNTZA ZENTROA
ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA
Aurrena, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!
C&C Llongueras diploma ofiziala
Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan
Nazioarteko lan-poltsa
Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: ces-llongueras@ya.com

Aretz
taberna
"Oilasko erreak eta paellak eramateko"
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

eteo
ETEO, KOOP. E.
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
ESKAINITAKO TITULUAK
IDAZKARITZA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
APLIKAZIO INFORMATIKOEN GARAPENA
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA
Irekita izena aurrez emateko epea
AUTOBUS LINEA BERRIA (2 ibilbide):
• Azpeitia-Azkoitia-Elgoibar-Eibar-Oñati
• Zornotza-Durango-Elorrio-Oñati
BISITATU GURE WEBGUNEA!
Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 Fax: 943 71 81 62
informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

OÑATI

Punta-puntako korrikalariak datoz zapatuko III. herri lasterketara

Oñatiko III. herri Lasterketa zapatu iluntzean da. Finkatzen doa lasterketa hori, eta aurten aurreko edizioetan baino korrikalari gehiagok hartuko dute parte. Gizonezkoen lasterketan parte hartuko dute, besteak beste, Peter Kamais iazko irabazleak eta Edwin Soi kenyarrak. Oñatiarrak ere izango dira lasterketan. Aurten ere zortzi bira eman beharko dizkiote herri barruko zirkuituari; 5.000 metro, gutxi gorabehera. Gaztetxoena 18:30ean hasiko da, Herriko Plazan, eta nagusiena, berriz, 19:00etan. /O.E.

EDU MENDIBIL

BERGARA

Zinemazaleek Novedades aretoa zabaltzeko eskatu dute

Novedades aretoa berriro zabaltzeko eskaera egin dio alkateari herriko zinemazale talde batek. Martxoaren 28an zinema aretoa itxi zutenetik 3.000 sinadura batu dituzte. Martitzenean azpimarratu zutenez, "zerbitzua behar-beharrezkoa da herriarentzat. Ez dugu etsiko eta zinema eskatzeko mobilizazioekin jarraituko dugu".

Era berean, aurreikuspen falta leporatu zioten Udalari: "Bazekiten Novedades ixtear zegoela, zinemako eraikina aspalditik dagoelako hirigintza antolaketatik kanpo. Hala ere, ez dute ezer egin arazoari aurre egiteko eta kultur areto aproposik gabe geratu gara". Protesta modura, zinemazaleak Novedadeseko leihatilan ilaran jarri ziren martitzeneko prentsaurrekoaren ostean, argazkian ikusten denez. /E.M.

ARETXABALETA

Euskara Biziberritzeko Plana aurkeztuko dute eguenean

Euskara Biziberritzeko Plana egin du Aretxabaletako Udalak hainbat eragilerekin elkarlanean, eta eguenean, ekainak 16, aurkeztuko du herritar guztien aurrean. Euskarak biziberritzeko denon premia duelako jarriko dute abian plana, Xabier Sarasua Euskara zinegotziaren esanetan; hau da, euskarak bultzada baten premia duelako gure herrian. Hala, 2008. urte arteko plan bateratua egin dute herriko hainbat eragilek Udalarekin. Horren guztiaren berri emango dute eguenean, 19:00etan, udaletxe zaharrean. /M.A.

ANTZUOLA

Umeen Dantzari Egunean 160 umek parte hartuko du, etzi, domeka

Oinarin dantza taldeak antolatuta, Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute etzi, domeka; inguruko herrietako sei dantza taldek eta 160 bat umek parte hartuko dute egun horretan.

Dantza talde guztiek kalejira egingo dute goizean, 11:15ean. Ondoren, 12:30ean, dantza saioa egingo dute talde guztiek batera, Herriko Plazan. 13:30ean bazkaltzera joango dira, eta 17:30ean izango da arratsaldeko saioa; saio horretan, talde bakoitzak bere dantzak eskainiko ditu. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

Aurkeztu dute babes ofizialeko etxebizitzen gaineko aurreproiektua

Mertxe Mondragon, alkatea, eta Hirigintza Saileko zinegotzia Roberto Aginagalde, GOITBko *Debarri* saioan izan dira oraingo astean. Landutako gaien artean, babes ofizialeko etxebizitzak izan zituzten berbagai. Hala, Aginagaldek jakinarazi zuen haiek eraikitzeko aurreproiektua aurkeztu dutela udalean. Zera ere gaineratu zuen: "Urbanizazioa bukatzen dabiltza, gero etxebizitzen proiektua aurkeztu beharko dute eta Udalak hura ikusi eta onartu bezain laster lanean hasiko dira". Hain justu ere, babes ofizialeko 44 etxebizitza egingo dituzte laster Aramaion.

Landutako bestelako gaien artean, alkateak jakinarazi zuen Aramaioko auzoen arteko errepide asko egoera okerrean daudela eta oso inbertsio handia egin beharko dutela haiek konpontzeko. Horren harira, jakinarazi zuen Zabola eta Untzilla arteko errepidea dagoela egoera okerrenean eta hura konpontzeko dirulaguntza eskatu diotela Diputazioari. Halaber, esan zuen baiezko erantzuna jaso bezain laster hasiko direla errepide hura konpontzen.

KULTURA ETXEA ETA KIROLDEGIA

Horrez gainera, alkateak jakinarazi zuen uda baino lehen hasiko direla kiroldegian konponketak egiten (dutxak, ateak eta leihoak); eta kultura etxeko itoginen gainean, berriz, adierazi zuen eraikina berritu zuen enpresari epea zehaztu diotela, eraikinean sortu diren arazoak konpontzeko. /U.M.

Zertzelada

Aramaioko Udalak dirulaguntza eskatu dio Arabako Foru Aldundiari, Zabola eta Untzilla auzoen arteko errepidea behar bezala konpontzeko

ARRASATE

Larri daudela-eta, Uribetxeberria eta Agirre askatzeko eskatu dute

Josu Uribetxeberria eta Jon Agirre presoak gaixo daude. Uribetxeberriak ezkerreko giltzurruneko minbizia du eta ebakuntza egin behar diote. Jon Agirreri, berriz, bi ebakuntza egin diote eta laster hirugarrena egingo diote. Agirreren kasuan, gaixotasun asko ditu, besteak beste, diabetesa, hipertentsio arteriala eta fibrilazio artikularra. Horrez gainera, orain dela hamar urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak.

Hori guztiori jakinarazi ostean, bi presoen senide eta lagunek haien etxeratzea eskatu zuten; ekintza gehiago ere iragarri zituzten eta parte hartzeko dei egin zieten debagoiendarrei. /U.M.

DEIANE ARRIETA

Presoen senideak eta lagunak martitzeneko prentsaurrekoan.

ESKORIATZA

Aste Zapatista izenpean, herrien eta zapaldutakoen aldeko egitaraua

Astelehenetik (hilak 13) zapatura arte Aste Zapatista egingo dute. Txiapasen aldeko taldeak eta gazte batzarrak antolatu dute. Jardunaldien helburua da Txiapasko egoera aditzera ematea, eta baita ere beste herri batzuei eta zapaldutakoei laguntzeko kontzientzia piztea.

BERBALDIAK, FILMAK...

Erakusketak jarriko dituzte kultura etxean. Horrez gain, filmak emango dituzte, liburuak aurkeztuko dituzte, berbaldiak izango dira eta zapatuan jai erraldoia egingo dute. /I.B.

ELGETA

Erretiratuek elkarteko urteko kuota ordaindu behar dute

Erretiratuen elkarteko bazkideek urteko kuota ordaindu behar dute. Zuzendaritzakoak ekainaren 19an Ozkarbi elkartean egongo dira dirua jasotzen, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Bakoitzak zazpi euro ordaindu behar ditu.

EUSKO-TREN TXARTELA

Bestalde, Eusko-Trenen beherapenak lortzeko txartela nahi dutenek Miren Villarrengana jo behar dute hilaren 25a baino lehen. NAren fotokopia, argazkia eta hiru euro eraman behar dira. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Pedro Mari Sasiain ziza-zaleak Piriniotara joatea gomendatzen du

Zizak batzeko Leintz Gatzagan paraje ederrak daude, baina Pedro Mari Sasiain ezaguna da Burgos, Errioxa eta Nafarroa aldera joaten delako askotan zizak batzera, eta kiloak ekartzen ditu urtero. Aurtengoa urte txarra izan dela esan digu, eta zizak gura dituenak Pirinio aldera egin beharko duela.

ASTEBURU EDERRA BERMEON

Bestalde, joan den asteburuan Gurel-eko hainbat familia Bermeon izan ziren, asteburu-pasa. Egonaldiaren berri eman digute. /X.U.

Gipuzkoako Eskola Txikien jaia egingo dute etzi, domeka, Elgetan. Gloria Castaños Eskola Txikien Koordinakundeko presidentea da, eta hari galdetu diogu jaiaren inguruan eta eskola txikien ezaugarriez eta osasunaz.

OIHANA ELORTZA

XABIER UBEDA / AIURRI

Gloria Castaños

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN KOORDINAKUNDEKO PRESIDENTEA

"Eskola txikiak bizirik badaude, herriak ere bizirik daude; horixe da gure filosofia"

ADMINISTRAZIOARI ESKAERA

"Gero eta gehiago entzuten da eskola txikien izaeraz baina araudira jotzean salbuespenak gara; errekonozimendua nahi dugu eta gure ezaugarriak kontuan hartzea"

ESKOLA TXIKIEN GARRANTZIA

"Herriak bizirik daude eskola txikiekin, umeek euren espazioan igarotzen dute lehen haurtzaroa, gertutasuna nabaria da eta gizartean duten erantzukizuna betetzen dute"

Zenbat eskola txiki daude Gipuzkoan?

28. Debagoienean bi dituzue: Angiozarren bat eta Elgetan bestea.

Eta zenbat ikasle daude 28 eskola txiki horietan?

Mila inguru. Ez dira heltzen, baina gutxi falta dira.

Mantendu egin da kopurua azken urteetan ala nabaritzen da lehen baino ume gehiago edo gutxiago daudela?

Ezin da orokortu. Herri bakoitzak bere hazkuntza prozesu propioa du eta ezin da esan 28 eskoletan ikasleak gehitu edo gutxitu egin diren. Herri batzuetako eskola txikietan mantendu egin da kopurua azken urteetan, beste batzuetan momentu txarrak pasatzen ari dira eta beste batzuetan, aldiz, igo egin da ikasleen kopurura.

Gero eta jende gehiago joaten da bizi izatera herri txikietara hiriguneetatik.

Fenomeno hori nabaritu da, bai. Hala ere, herri asko handitzen ari dira, etxebizitza asko egiten ari direlako. Horrekin batera, eskolak ere handitzen doaz. Beste herri batzuetan, adibidez, sortu egin dira eskola txikiak. Lehen ez zeuden, eta herria handitzearekin batera eskolaren premia dagoela ikusi dute. Herri batzuetan tokatu da eskolarik ez egotea ere.

Herri guztietako egoerak ez dira berdinak eta hainbat arrazoi daude eskola txikietako ikasle kopuruaren igoera edo jaitsierarekin. Hala ere, eskola txikia zuzenean dago lotuta etxebizitzekin. Herriko biztanleek beste toki batera ihes egiten badute, ez dago matrikulaziorik.

Familia bakarreko etxebizitzak ere ugaldu egin dira landetan.

Gertatu da momentu batzuetan herrikoak bertan gelditu nahi izatea eta aukerarik ez edukitzea. Baina orain aukera badago, eta eskaintza horri helduta, jende asko doa landetara.

Eskola txikiek etxebizitzak behar dituzte, baita alderantziz ere, ezta?

Erabat lotuta daude biak. Askotan esaten dut sinbiosian daudela herriak eta eskolak. Daukagun leloa ez da polita delako edo kasualitatea delako, aukeratu genuen gurekin bat datorrelako. Edozein herrik bizirik egoteko zerbitzuak behar ditu, baina ez edozein zerbitzu. Guretako eskola izatea da oso garrantzitsua: umeak bertan hezten dira, bertan jolas egiten dute, bertan egiten dituzte lagunak, bertan ikasten dute eta bertan gelditzen dira. Herriari bizitza ematen diote.

Umearen garapenerako ere garrantzitsua da herrian izatea eskola?

Eskola txikietako ikasleek bi eta 12 urte bitartean dituzte. Haur eta Lehen Hezkuntza mailak egiten dituzte eta 12 urterekin zentro handiagoetara joaten dira Bigarren Hezkuntza egitera. Baina lehenengo urteetan, haurtzaroan, ez dira herritik mugitzen, etxetik gertu eta etxekoen eta lagunen inguruan hazten dira. Eurek ezagutzen duten medioan, espazioan.

Garrantzitsua da lehenengo haurtzaroa zenbat eta gertuago pasatzea familiaren eta ezagunen ondoan. Hori oso positiboa da eta horretan denok gaude ados, baina batzuek ezin dute hori egin, euren herrietan eskolarik ez dagoelako.

Betiko eskolak dira eskola txikiak?

Bai, ez dira bat-batean sortu diren eskola mota bat. Eskola txikiak deitzen zaie tamainagatik, dudarik gabe, baina dira betidanik herrietan egon diren eskolak. Duela 30 urte, adibidez, herri askotan orain baino jende gehiago bizi zen eta familiak handiagoak ziren. Biztanleak eta ume kopurua jaisten joan diren heinean, herrietako eskolak ere txikitzen joan dira.

Bestetik, eskola guztiendako araudi orokor bat atera behar da, eta hori, normalean, kopuruaren arabera egin dute. Eskola txikietan kopuru horietatik kanpo gelditu gara gehienetan, eta horregatik hasi zen eskola txikien izaera ezberdina izaten, ezaugarri propioak izaten: esaterako, hainbat mailatako umeak gela bakarrean izaten.

Hortxe sortu zen eskola txikien izaera propioa?

Guk geure kopuruak ditugu, irakasleen egoera ere ez da berdina. Geure ezaugarriei begiratuz hasi ginen eskola txikien izaera propioa aldarrikatzen.

Zertan ezberdintzen dira eskola txikiak beste edozein ikastetxerekin konparatuz?

Hezkuntzan, funtzioei begira jarriz gero, edozein ikastetxek eragin izugarria du familiarengan, herrian, administrazioan, auzoan. Gizartean integratuta dagoelako, erantzukizun bat du. Baina erantzukizun eta funtzio hori berbera da eskola txiki batean edo bete ikastetxe batean. Ez dira ezertan ezberdintzen. Herri txiki batean gertutasuna nabarmenagoa da, agian integratuagoa gelditzen da eskola herrian, eta hori izan daiteke diferentzia bakarra.

Eskola txikietako irakasleen lana besteekiko ezberdina dela esan duzu. Zertan bereizten dira?

Integrazio pedagogikoaren aldetik, ez da gauza bera egotea lehenengo maila batean, edo egotea gela batean lehenengo mailako, bigarreneneko eta hirugarreneko ikasleak daudena. Beste alde batetik, ikasleak aldatuz doaz eta gela berean mailak aldatzen dira. Gela bereko ikasle batzuk gazteenak dira urte batean, erdikoak hurrengoan eta zaharrenak handik bi urtera, eta egoera horri erantzun behar dio irakasleak. Edozein irakasle bezala prestatu beharko dute eta saiatu beharko dute euren lana ahalik eta ondoen egiten.

Bestetik, eskola txiki batean dauden irakasle kopura bitik seira izan daiteke, adibidez. Irakasle guztiak ez dira finkoak eta batzuk urtero aldatzen dira, eta aldea dago irakasle asko dauden toki batean erdiak aldatzea edo sei irakasle bakarrik dauden eskola batean erdiak berriak izatea. Egoera horrek desoreka handia sortzen du. Horrez gain, eskola txikiko irakasleek denetarik egin behar dute: zuzendari edo idazkari izan behar dute, gurasoekin harremanak izan behar dituzte eta eurak dira udalarekin hitz egin behar dutenak. Hori ere beste ezaugarri bat da. Aspaldi, irakasleen arteko koordinadora bat sortu zuten, irakasle bat isolaturi senti ez dadin eta batak besteari lagun diezaion.

Ze arazo dituzte eskola txikiek?

Bakoitzak bereak ditu. Momentu honetan, toki askotan eskola txikiaren eraikina bera txiki gelditu da eta hori mugitzea nahiko zaila izaten da, inplikazio asko eskatzen ditu eta. Administraziori begira, eskola txikiekiko errekonozimendu bat eskatzen da. Gero eta gehiago entzuten da eskola txikien existentzia eta izaera, baina araudietara jotzean, betiko arazoekin egiten dugu topo eta askotan salbuespenak izaten gara, bai tamainagatik eta baita egoeragatik ere.

Begirune handiagoa eskatzen diozue administrazioari?

Hobekuntzak izan ditugu, baina guk gehiago nahi dugu. Ez gara ezer berezia, baina ikuspegi batzuetatik begiratuz gero, berdinak ez garela ere ikusten dugu. Adibidez, eskola handietako jangeletan 20 ume gelditzen dira gutxienez bazkaltzen, eta eskola txikietan, bospasei bakarrik. Hala ere, beharrari erantzun egin behar diogu.Ez dugu tratu berezirik nahi, baina gure ezaugarriak kontuan hartzea bai.

Txikitasuna aldarrikatzeko eguna izango da Elgetan egingo duzuen eskola txikien eguna?

Bai, horixe da urteroko aldarrikapena. Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik. Horixe da gure abiapuntua eta gure filosofia. Hainbat ñabardura jar daitezke herri bakoitzean, baina txikitasunari helduta. Horri heldu behar diogu eta horrek positibotik duena atera behar dugu aurrera, horretan sinesten dugulako. Herri txikien arteko elkarbizitza, elkarren arteko komunikazioa ere ikusiko da domekako festan.

Gutunak

Lotsagarria

Honela deritzet azkenaldi honetan Oñatiko Udalak harturiko erabakiei. Lehenik eta behin, haurrei herriko plazan baloiarekin jolas egitea debekatu zieten. Nire ustetan horiek ematen diote poza gure enparantzari. Beste alde batetik, 15.600 euro kostatu diren 26 lorontzi jarri dituzte plazako arkupeetatik zintzilik. Izango al du batak bestearekin zerikusirik? Izango al da Udala haurrei herriko plazan baloiarekin jolas egiten debekatzeko kapaz, 15.600 euroko lorontzi batzuk zintzilik jartzearren?

Nik, neure aldetik, herriko haurrei baloiarekin jolas egiten jarrai dezaten dei egiten diet. Nire ustetan horiek ematen diote poza eta bizitasuna gure enparantzari, eta ez dirutza bat balio duten lorontziek.

Amaitzeko, Oñatiko alkateak, herri guztiaren izenean Lopez jaunari bidalitako mezua ez dakit zertara datorren. Benetan lotsagarria.

XABI ELORTZA
Oñati

Bederatzi bai

Nekane San Miguel epaile arrasatearraren idatzia *Argia* astekarian irakurri ondoren, legez kanporatutako bi zerrenda ordezkatzeko aukera sortu zuen alderdi bati 150.000 biztanlek bozka eman genion hauteskunde "demokratikoak" kontuan izanda, Ezker Abertzalearen aurka azaltzen duen jarreraren zergatiei bueltaka aritu naiz.

Zuretzat (eta beste askorentzat), ezker abertzale usaindun alderdi gabeko hauteskundeen emaitza demokratikoa izango litzateke, horrela erabateko gehiengoarekin erkidegoa batzoki bat balitz bezala gobernatzeko aukera izango lukete batzuek, eta bosgarrenetik zazpigarrenerainoko diputatu kopuru zibil eta zabala lortzekoa beste batzuek, ezker abertzale ofizial eta ortodoxoa (eurek dioten bezala) instituzionalki (erakundeetatik) lurperatuta egotera bultzatuaz, eta demokrazia zuentzat zer den argi utziaz (adibiderik ez da falta; bi urte igaro ondoren, Ezker Abertzaleak udaletxeetatik kanpo jarraitzen du).

Ezagutzen duzu bai ezker abertzalea; ezagutu izan duzula esango nuke, kontraesanak behintzat bai, baina era oso pertsonalizatuan zure idatziak agertzen duenez eta ez eredu, ildo eta jokaerak estimatuz. Ezker Abertzaleak izan dituen kontraesan horiek direla eta, "ikusten, ni zuzen nenbilen" esanez batzuk pozik dabiltzan bitartean, ezker abertzaleko besteok egunerokoan ari gara herri orekatu eta aurrerakoiagoa lortzeko asmoz; baita aberria "euskalduntzeko" ere, orain dela urte batzuk bezalaxe kultur ekintza, gau eskola, ikastola eta AEK bezalakoetan, independentziari itxaroten egon gabe.

Adibiderik aurkitu ezinik bazabiltza, hausnarketa batean zure herrian ezker abertzaleko alkatetzak egindako lana gogoratu besterik ez duzu (guztioi irekia zena, ez oraingoa bezala), ea kontraesanik aurkitzen diozun.

Herri honetan bakea eta justizia lortzeko, EHAK-ko parlamentariek benetako ahaleginak egingo dituztela ziur izan; ez dira dilista plateren truke kontraesanetan eroriko, eta ez dute ikurrinik kenduko, zure lanbide bereko pertsona batek aginduta beste batzuk Leitzan egin duten bezala. Aztertu gaurkotasuna, mesedez. Faleeeee, zu.

JUAN MARI URRUTIA
Arrasate

Kultura ez da erosten

Ines Aldai, *DV*-n, 2004ko abenduaren 16an. "¿Cuál es la misión de los grupos culturales? ¿Es atender, crear y difundir el dominio cultural del que son expertos? ¿Es su obligación reportar cultura en aquellos momentos señalados al pueblo del que son parte?".

Arrasateko kultur talde bateko partaide izanik eta gutun honetan soilik gure izenean arituko garela argi utziz, "reflexiones y otras interrogantes" hauei erantzuna emateari beharrezkoa deritzogu.

Astean zehar ehun pertsona inguru (irakasle eta ikasle) aritzen gara taldean euskal kultura zabaltzen. Partaide hauek guztiok ez dugu inolako irabazi asmorik eta urte osoan zehar etengabe aritzen gara gure esparrua mantentzen, sortzen eta hedatzen. Gure taldeak ez du sekula izan Arrasateko Udalarekiko mendekotasunik. Beti egon gara prest gure aisialdiko orduak euskal ohitura eta usadioei eskaintzeko, eta inoiz ez dugu ordainetan ezer eskatu. Baina taldearen eguneroko jarduna aurrera eramateko beharrezkoa dugu Udalaren dirulaguntza (nahiz eta hainbat urtetan ez dugun zentimorik jaso). Hala ere, beti bilatu izan ditugu bide alternatiboak gure izaera independentea mantentzeko.

"...a veces se resiente la participación de los grupos culturales, que por otra parte están siendo apoyados y protegidos desde las instancias municipales".

Ines, zuk gutuna idatzi aurretik, kultur taldeok zertan ez genuen parte hartu? Zeintzuk dira aipatzen dituzun laguntza eta babesa? Kultura eta euskara zinegotzi zarenetik, herri honetako kultur taldeen egoerak okerrera egin du etenik gabe.

Ondo deritzogu zine, antzerki, azoka, eta abarren eskaintza zabaldu izanari, baina ez al da ba kontraesana dirua kanpokoei bideratzea bertakoon kalterako? Guk argi ikusten dugu zure udalbatzak kulturaren alde egindako apustuak ez digula mesederik egiten. Azken urteko dirulaguntzen aurrekontuetako zati handi bat Udalean geratu da, kanpoko enpresaren batek eraman ez badu behintzat (erdi aroko azokan 22.000 euro eta beste 10.000 propagandan). Ez al da paradoxikoa bi eguneko ekintza baten eta kultur taldeen urteko aurrekontuaren arteko diferentzia 4.700 euro izatea? Hau guztia, kultur taldeok aurrekontuan ezarritakoa baino gutxiago jaso dugula kontuan izan gabe. Hau da, azkenean erdi aroko azokaren kostuak kultur taldeoi eman zaigun zenbatekoa gainditzen du.

Ondorioz, hurrengoa datorkigu burura: Arrasateko Udalak edo Inesek garrantzi handiagoa ematen dio berak ezarritako azoka berriari, herrian urteak lanean dihardugun kultur taldeoi baino. Bestela, nola azaldu dirulaguntzen murrizketa? Udaletik datorkigun laguntza eta babesa hau baldin bada, nahiago dugu babesik ez izan! Zenbat aldiz errepikatu behar dugu ez garela Udalaren menpeko enpresa bat? Gu ez gara kalean egongo Udalak agintzen digunean, baizik eta taldeak erabakitzen duenean. Horregatik, ez dugu nahi soldata bidez funtzionatu, herriarentzat egindakoa konpentsatzea baizik.

"Cuestiones y conceptos como fiesta popular (herriko jaiak) no entiendo cómo se pueden caracterizar en función más de quien lo apadrina, impulsa u organiza, que de lo que se pretende hacer".

Guk badakigu zein den gure eginbeharra eta herriarekiko dugun erantzukizuna, baina agian zuk ez duzu garbi. Ikusi dugunaren arabera, zure eserlekuan eseri eta telefono dei batzuen bitartez dena antolatzen duzu. Enpresaburu edo idazkari bikaina zu! Baina jakin besteok ez dugula berdin funtzionatzen. Jai herrikoi batzuk bultzatzeko ezinbestekoa da herriaren inplikazioa, eta horretarako eredu eraikitzailea nahi dugu. Zuk darabilzuna, aldiz, suntsitzailea da, 25 urtetik gora lanean borondate onez aritu den Komisiñua alboratu duzu jaiaren protagonismoa bilatu nahian. Ez hori bakarrik, gainera ez gaituzu kontuan izan erabakia hartzeko unean eta gutxi balitz, gutun bat egunkarira bidali zenuen haurren kolektiboa tartean sartuz gure moraltasuna kolokan jartzeko asmoz. Guk ez dugu gure moraltasuna demostratu beharrik, eguneroko lanean igartzen baita zein den gure pentsatzeko era. Komisiñuaren lana guztiz goraipatzen dugu, talde politiko gehienek Udalean egin bezala, nahiz eta gehiengoak ekintzekin aurkakoa erakutsi. Zenbat aldiz egin behar duzue berdina? Hitz politak esatea oso erraza da, baina ekintzen bidez berretsi behar da aurrez esandakoa.

Oraindik ez dugu guztiz ulertzen zergatik baztertu den Komisiñua, urte askotan zehar argi utzi baitu bere lanerako gaitasuna eta kultur taldeokin elkarlanean gainbehera zihoan jaia Arrasateko arrakastatsuenetako bat izatea lortu du, betiere Udalaren laguntza ekonomikoaz. Udalaren web orrian oraindik ere Komisiñua azaltzen da antolatzaile gisa eta Udala laguntzaile moduan.

Horregatik guztiagatik, Arrasaten izan dugun jai eredu aberasgarriaren alde agertzen gara (udalerri askotan nahi lukete horrelako lantaldea!) eta berau defendatzeko ez dugu zuk bezala argudio hunkigarriak eta haurrak erabili. Pentsatzen duguna azaltzerakoan zehatzak izan garela uste dugu eta mesedez argi gera dadila ez dugula talde osoa ordezkatzen. Besterik gabe jakin ezazu gure herriarekiko jarduna ez duzula enpresa bailitzan kudeatuko, hots, gu ez gaituzula erosiko.

IKER JIMENEZ, KOLDO BALANZATEGI ETA ENEKO ARANA
Arrasate

Estatu terrorismoa

Aspaldi honetan ugari dira bake prozesuari egiten zaizkion aipamenak. Espainiako kongresuak hartutako erabakiak, Zapateroren talantea... gizarteak begi onez ikusi omen ditu. Espainiako Estatuak aurrerapausoak bakarrik eman omen ditu (hori da hedabideetan azaltzen zaiguna).

Alderdi politiko gehienek ETAren ekintzetan bakarrik ikusten dituzte atzerapausoak. Gobernutik, berriz, ez omen dator atzerapausorik.

Inor ez dugu entzun Marisol Iparragirreren egoerari buruz hitz egiten. Haren bizi baldintzak jasanezinak izateagatik 21 egun daramatza gose greban. Baina hau ez da hedabideetan ageri, hau ez da atzerapausoa. Josu Uribetxeberria eta Jon Agirre ere ez dira alderdi politikoen agendetan agertzen. Espainiako gobernuak Euskal Preso Politikoen Kolektiboari ezarritako mendeku politikaren ondorioz, oraindik kartzelan dituzte biak. Oso larri egon arren. Baina hau ere ez da hedabideetan ageri, hau ere bake bidean ez ei da atzerapausoa.

Irantzu Abad koma egoeran dago Madrilgo ospitale batean sakabanaketaren ondorioz auto istripu bat izan eta gero. Aurten sakabanaketak eragindako 16 istripu larri izan dira, 44 zauritu utziz. PSOEk eta PNVk diseinatutako sakabanaketak hiltzen jarraituko du, kartzela politika aldatu ezean. Baina hau horrela mantentzea, sufrimendua luzatzea, ere ez da atzerapausoa. Hauek, tamalez, zerrenda amaigabe bateko adibide batzuk besterik ez da. Inork ikusten ez dituen atzerapausoen zerrenda amaigabea.

PSOE, gatazka politikoa konpondu nahi bada, estatu terrorismoa bilakatu den kartzela politika aldatu egin behar da.

Oharra: zaudeten tokian zaudetela ez zaituztegu bakarrik utziko, oztopoen gainetik bisitan izango gaituzue.

ARRASATEKO ASKATASUNA
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Lirainek, ibarreko zentro handienak eta teknologia puntakoena duenak, edertze tratamenduetan izan den aurrerapen garrantzitsuena aurkezten dizu primizian

tmt system

Emaitza ikusgarriak kirurgiarik gabe, injekziorik gabe, bigarren mailako efekturik gabe eta minik gabe.

Tratamenduak:

- Zelulitisaren aurkakoa
- Biguntasunaren aurkakoa
- Estrien aurkakoa
- Zimurrak arindu eta azala gaztetu

Eskatu informazioa konpromisorik gabe.

Etorkizuna emaitzak dira.
Etorkizuna erosotasuna da.
Etorkizuna soiltasuna da.
Ongi etorri etorkizunera. Ongi etorri Lirainera.

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA

Bixente Ferrer 1 20500 ARRASATE Tel. 943 79 52 17

Uda 05 zoragarria!

San Juan jaiak

Aprobetxa itzazu Arrasate Marsans Bidaien eskaintza bereziak:

LANZAROTE
8 egun – 7 gau. Mantenu erdia. Korbeta hotela:
377 _-tik aurrera
Umeak doan

TENERIFE
8 egun – 7 gau. Mantenu erdia:
350 €-tik aurrera
Umeak doan

MALLORCA
8 egun – 7 gau. Mantenu erdia:
309 €-tik aurrera

MALLORCA
3 egun – 2 gau. Mantenu erdia.
Horizonte hotela (2 izar):
198 €-tik aurrera

SUANCES
3 egun – 2 gau. Gosariak barne.
Montañes hotela (3 izar):
49,90 €-tik aurrera

Kostaldeko erreserbak

Kostaldeko erreserbetan,
aldez aurretiko salmentan
%8ko deskontua
(Ekainaren 15era arte baliagarria)

Jamaika eta Karibea

Eta aurtengo udan zergatik ez Jamaika edo Karibeko beste herrialderen bat bisitatu?
Adi egon! Aldez aurretiko salmentak %7ko deskontua
Zatoz eta galdetu!



Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

marsans viajes

Eskaintza gehiago...
ARRASATE BIDAIAK
Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a

Fuentes, lehena Debagoienera etortzen

Denonerreala taldekoak Oñatin egon ziren atzo, eta Bergaran izango dira gaur

XABIER URTZELAI

Orain arte, Realeko presidente izateko kanpainaurrea urrunetik jarraitu dugu, baina hautagaiak hasi dira dagoeneko ibarrera etortzen, badakite-eta hemen badagoela etekina ateratzea. Fuentes eta Denonerreala taldea izan da lehena, atzo Oñatin, eta gaur Bergarako Pertxa elkartean (19:30ean).

Poliki-poliki etorriko dira Santos eta Gibelalde ere. Ikusi egin beharko da, baina, zer saldu gura duten, orain arte gatz bako kanpainaurrea izan dugulako. Hautagaiek esandakoaren gainean, gauza berri gutxi: ekonomikoki taldeak egonkortasuna lortu behar duela, harrobia... Hori, hiru hautagaiek izan duten diskurtsoa. Dena dela, hasi dira gauza batzuk argitzen. Hala, Santosen eskutik doan Karpinek botatakoari esker, badakigu gipuzkoar izate hutsagatik jokalariek ez luketela Realean lehentasunezko traturik izan behar, eta Gibelalderekin, Olabek jai dauka: "Fitxaketen arduraduna Olabe izan bada, ez du asmatu. Eta lan hori berak egin ez badu, bere postua soberan dago".

JOKIN ETXEBARRIA

Fuentesen kandidaturakoak Oñatin egon ziren atzo; gaur, Bergaran.

Aste barruan, hainbat komunikabidetan egin diote elkarrizketa Miguel Fuentes hautagaiari. Batetik, klubean benetako aldaketa egon dadin baliozkoa den hautagai bakarra dela esan, eta Denonerrealaren talde izaera azpimarratu du. Horrekin batera, jokalarien irabazien gaineko gai delikatua ere aipatu du: "Posible da jokalarien irabaziak kirolean egindako lorpenen araberakoak izatea". Realeko jokalari ohia ez da izan lehena horrelako bat botatzen. Bartzelonan, joan den urtean hasi ziren horretan, baina badirudi orain egin berri dituzten kontratu luzapenetan bertan behera utzi dutela ordainketak egiteko sistema hori.

REALEKO GORABEHERAK, HEMEN

Asteleheneko Goienkaria-k hiru hautagaiei egindako elkarrizketak argitaratuko ditu astelehen honetan. Bestalde, Goiena Telebistan, martitzenean (21:00etan) egingo dute Realeko hauteskundeen gaineko mahai-ingurua. Gorka Etxabek zuzenduta, hiru taldeetako ordezkariak izango dira.

Eta horrekin batera, jakin, Realeko gorabehera guztiak jarraitu ahal izango dituzuela *Goiena.net*-eko blog komunitatean dagoen euskarri berrian, *www.goiena.net/blogak/reala* helbidean. Eta blog horretan idazten duen Juan Luis Azkaratek dioen moduan: "Denborarekin, izen propio gehiago: jokalari izarrak, entrenatzaileak, managerrak... joango dira irteten. Gauzak berotzen joango dira poliki-poliki; baina, oraingoz, kontua berde samar dago". Zain jarraitu beharko dugu, hautagaiak berotzen diren arte. Eta Debagoienean bada?

Kirolabur

OÑATI/HERRI LASTERKETA

Bihar arratsaldean egingo dute Oñatiko herri lasterketaren hirugarren edizioa.

Estatuko atletismoko 20 lasterketa onenen artean sartu dute, eta lehenengo mailako korrikalariak izango dira.

ARETXABALETA/FUTBOLA

Kilometroen egitarauaren barruan, alebin mailako Nazioarteko Futbol Txapelketa antolatu dute astebururako.

Besteak beste, Galesko, Eskoziako, Frantziako eta ibarreko taldeek hartuko dute esku.

ESKORIATZA/MENDIA

Domekan egingo dute Txikirri-Txikirri mendi ibilaldiaren bosgarren edizioa.

06:00etan irekiko dute izenematea herriko plazan, eta ordubete geroago hasiko da 40 kilometroko mendi ibilaldia.

ELGETA/PILOTA

Gaur, 20:00etan, jokatuko dira Elgetako Lau t'erdiko ETB Kantxa Txapelketako final-laurdenak. 23 urte azpikoetan, Berasaluze eta Olaetxea lehiatuko dira lehenik eta Argote eta Renobales gero. Kadeteetan, Urrutikoetxea eta Peñas izango dira nor baino nor gehiago.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Lanbide profilak

Debagoieneko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1go maila
- **Modulu-altzarien fabrikazioaren laguntzailea**
- **Industri mekanikoko laguntzailea**
- **Sukaldeko laguntzailea**

2.maila
- Behe tentsio instalazio elektrikoko laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

AURREMATRIKULA
Ekainaren 13tik 30era

Non: Udaletxeetan. (Enplegu edo gizarte zerbitzuak)
*Izen emate orriak udaletxean bete behar dira

LANBIDE HASTAPENA

2005-2006 IKASTURTEA



FONDO SOCIAL EUROPEO

Arizmendi ikastola

LANBIDE HASTAPENA Nafarroa etorbidea, 19 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) Tfnoa. 943792890 - 943793212

14 koa!

Euskaltelen **Zuntz Optikoarekin** bete-betean asmatuko duzu:

- X Kable bidezko **TB** (20 kanal aukeran)
- X **Telefonia finkoa**
- X Banda Zabaleko **Internet**

eta ORAINTXE BERTAN kontratatzen baduzu, Euskadi barruko deiak DOAN izango dituzu lehenengo hiru hiletan.

Hilean **14 €** -tik hasita.

Hileko kontsumoa bereiz fakturatzen da. Banda Zabalean Despega Recarga produktua ere sartzen da. Banda Zabalera konektatzeko, gutxienez 5 €-ko bonua erosi behar da. Zeharkako zergak sartu gabe. Telefono finkoetara egindako deiak, Euskadi Ahots Tarifa Finkoa kontratatuz gero. 2005eko uztailaren 31 baino lehen Etxeko Zuzeneko Sarbidean alta ematen duten bezero berrientzat balio du sustapen honek.

Euskaltelen **Zuntz Optikoarekin**, beste era batera ikusiko duzu mundua.
Etorri Router Comunicaciones-era eta asma ezazu. Bete-betean.

ROUTER COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15 behea
tel. 943 70 03 69
Eibar

Maalako Errebala, 8 behea
tel. 943 71 27 81
Arrasate

Euskaltel -en Banatzaile Ofiziala

EROSKI.ES DENBORA ZURE BAITAN
>> Ba al dakizu zein den hamabostaldiko erosketa 15 minutuz azpitik egiteko sekretua?
Erraz-erraza da. Behin zure ohiko zerrenda eginez gero, oso denbora gutxi beharko duzu hurrengo erosketak egiteko. Aski duzu zure eskaeraren amaieran, entregatzeko eguna eta ordua aukeratu aurretik, Bihurtu ohiko zerrenda botoian klik egitearekin.
Kitto! Horrexen erraz. Orga betea izango duzu beti EROSKI/onlinera itzultzen zaren bakoitzean.
EROSKI online
ZURE SUPERMERKATUA INTERNETEN
> erosketa erosoa
> erosketa bizkorra
> erosketa erraza
> erosketa segurua
Bezeroarekiko Arreta Zerbitzua
902 100 441
compraonline@eroski.es
www.eroski.es

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 10etik 17ra

Mundumira asteburuko festa

Debagoieneko eta kanpoko musika, gastronomia, artisautza... erakusleihoan

Lehenengo aldiz ospatuko da Mundumira jaialdia, eta Debagoienean izango da. Musika emanaldiak, azokak, natura eta kultura ibilaldiak, hitzaldiak, proiekzioak, umeendako eta familia osoarendako ekintzak... Hamaika aukera izango dira egubakoitzetik domekara bitartean.

Jaialdiaren babesle nagusia Debagoieneko Mankomunitatea da, bere Kultura Saileko lan filosofiarekin bat datorrelako ekimen hori: Debagoiena ezagutaraztea, eta formatu handiko eta kalitatezko jaialdiak antolatzea.

AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Ekitaldi gehienak, ibilaldi gidatuak izan ezik, Arrasaten izango dira. Jende guztiari hara joatea ahalbidetzeko, autobus garraio plan berezia antolatu dute zapatura bitartean. Hala, maiztasun handiagoa izango du autobus zerbitzuak. **/15**

LEIRE KORTABARRIA

Phil Cunningham eta Aly Bain, eskoziarrak.



Marcio Faraco, brasildarra.

Babacar & Diengoz, senegaldarrak.

Egitaraua

EGUBAKOITZA, 10

- **18:00:** Informazio puntua, zabalik Munduko Soinuak karpan.
- **18:00:** *Euskal aztarna Argentinan* argazki erakusketa Monterronen.
- **19:00:** Patagonia filmaren emanaldia Joxe Ramon Agirre Marron-ekin, Monterronen.
- **20:00:** *Euskal Herria ezagutzeko ibilbideak* diapositiba emanaldia Ibon Martinekin, Monterronen.
- **21:00:** Kalejirak perkusio taldea Karpan.
- **22:30:** Gariren kontzertua Monterronen.
- **00:00:** Babacar & Diengoz (Senegal), zuzenean Monterronen.

ZAPATUA, 11

- **08:30:** Udalatxera mendi igoera, Udalatik. Intxorta-Asentzio ibilbidea Mundumira Informazio Puntutik.
- **10:00-21:00:** Munduko Kulturen Artisautza Azoka, Munduko Kulturen Gastronomia Azoka, Elkartasuneko Merkatariza Gunea eta Senderismo Azoka.
- **10:00:** Natura eta paseo kulturalen gaineko informazio banaketa Mankomunitatearen postuan.
- **11:00:** Moviarte egitasmoaren animaziozko film laburrak Monterronen.
- **12:00:** *Senderismoa eta turismo berdea* mahai ingurua Monterronen.
- **11:00-21:00:** Umeendako guneak Monterron inguruan eta Seber Altuben.
- **11:00-21:00:** Kale animazioa: Musika Kalean, sei talderen emanaldia Olarten; txotxongilo erakusketa Seber Altuben; Bidaiari Hegalariak erakustaldia Olarten (20:00); zirko erakustaldiak alde zaharrean; Mulambo afrikar perkusio taldearen kalejirak.
- **10:00-14:00:** *Más que palabras* irratsaioa zuzenean Karpatik.
- **17:00:** *Senderismoa La Palman* eta *Juraren zeharkaldia* diapositiba emanaldiak Monterronen.
- **18:00:** Munduko Soinuak karpan, musika: Iban Nikolairekin, digderidoo australiarra (18:00); Pomadarekin, akordeoi europarra (19:00) eta Ttakunparekin, perkusio afrikarra (20:00).
- **22:30:** Phil Cunningham & Aly Bain (Eskozia) bikotearen zeltar musika emanaldia Monterronen.
- **23:45:** Marcio Faraco (Brasil) bakarlariaren emanaldia Monterronen.
- **01:00:** Raul Paz (Kuba) musikariaren saioa Monterronen.

DOMEKA, 12

- **08:30:** Kurtzebarrira igoera Urkulutik, eta Araotzera irteera Mundumira Informazio Puntutik.
- **10:00-21:00:** Munduko Kulturen Aritsautza Azoka, Munduko Kulturen Gastronomia Azoka, Elkartasuneko Merkataritza Gunea eta Senderismo Azoka.
- **10:00:** Natura eta paseo kulturalen gaineko informazio banaketa Mankomunitatearen postuan.
- **11:00-14:00:** Umeendako guneak Monterron inguruan eta Seber Altuben.
- **11:00-14:00:** Kale animazioa: Musika Kalean, sei talderen emanaldia Olarten; txotxongilo erakusketa Seber Altuben; zirko erakustaldiak alde zaharrean.
- **11:00:** Bidezko Turismoa mahai ingurua Monterronen.
- **13:00:** Moviarte egitasmoaren animaziozko film laburrak Monterronen.
- **12:00-14:00:** Munduko Soinuak musika tailerrak karpa-pubean, Pomada taldearekin.

AZALA: IÑAKI ITURBE

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

ANTZUOLA
- Gabilondo Arregi harategia (A)
  Kalebarren 14

ARAMAIO
- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
  Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE
- Landaluze harategia (A)
  Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
  Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A)
  Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
  Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
  Antxo Abarka 1

BERGARA
- Andres Mujika harategia (A)
  Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
  Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
  Espoloia 12

ESKORIATZA
- Zubia harategia (B)
  Santa Ana 11

OÑATI
- Antxon harategia (A)
  San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B)
  Portu 2
- Garai harategia (A)
  Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
  Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ekainaren 20tik aurrera *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak *Asteleheneko Goienkaria*-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

- **1. saria:** Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
  - 8 milioi pixel.
  - Zuiko digital 14-45 mm objektiboa.
  - Objektibo aldagarriak.
  - Flash eta guzti.
  - 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.
- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **Sari berezia:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.

Laguntzaileak:

GURE AMETSA JATETXEA

EROSKI bidaiak merezi duzu

Mobiliario ARENAZA ALTZARIAK • DISEINUA

kiñu argazkilariak

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

JAIALDIA/ **MUNDUMIRA FESTA, ASTEBURU OSOAN**

Ibarra, munduko kulturen topaleku

GAUR, EGUBAKOITZA, HASI ETA DOMEKARA BITARTEAN, KANPOKO ETA BERTAKO KULTURA ADIERAZPENAK BATUKO DIRA ARRASATEN

LEIRE KORTABARRIA

Munduko zenbait kultura eta musika gurean hartu, eta geureak plazaratu: hori da Mundumira festaren helburua. Festa horrek hartuko du ibarra gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean. Ekintzak Arrasaten izango dira, eta hara joateko autobus plan berezia izango da.

Mundumira, munduko kulturen festa, *Euskal Herria* aldizkariak antolatu du, eta Mankomunitateko Turismo eta Kultura sailen babesarekin egingo da. Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta hainbat enpresa eta erakunderen laguntza du.

Helburua da munduko beste kultura eta bizimodu batzuk Debagoienera ekartzea, eta hemengoak ere erakustea. Hala, Debagoienaren irudia Euskal Herrian ezagutaraziko da, eta eskualdearen turismo eskaintza zabalduko da. Hauxe dio Ernesto Murgiondo Mankomunitateko Kultura batzordeko arduradunak: "Hainbat lurraldetatik etorritakoen topagune izango da, baina, batez ere, Debagoienak dituen natura, ondasun historiko-artistiko eta kulturak ezagutarazteko ekimena da".

Musika izango da protagonista bat, eta bost musikari eta talderen emanaldiak antolatu dituzte. Hala, egubakoitz eta zapatu gauean, Monterronen, kontzertu bana izango da: Gari (Euskal Herria) eta Babacar & Diengoz (Senegal), gaur, egubakoitza; eta Phil Cunningham & Aly Bain (Eskozia), Marcio Faraco (Brasil) eta Raul Paz (Kuba) bihar, zapatua, 22:30ean. Baina, musikaz gain, beste ekitaldi asko dago: artisautza, gastronomia, bidezko merkataritza… azokak; kultura eta natura ibilbide gidatuak; mendi ibilaldiak; umeendako eta familia osoarendako ekintzak; kale-antzerkia; musika tailerrak… Gainera, Euskal Herriko lehenengo mendi-ibilaldien azoka izango da zapatuan eta domekan. Euskal Herri osoko 23 argitaletxe, kirol enpresa eta turismo arloko enpresa eta erakundek parte hartuko dute hor.

Horrez gain, Mundumirako kamisetak salduko dituzte 20 eurotan. Bakoitzetik 3 Mozambikeko Marrupa garapen proiekturako izango dira.



NEREA ZUBIETE

Mankomunitateko, udaletako, Foru Aldundiko eta Pesako ordezkariak, garraio eta aparkaleku planaren aurkezpenean.

Jaiaren logotipoa.

GARRAIO PLAN PILOTUA

Ekintza gehienak Arrasaten izango dira, horrelako jaialdi batek ekintzak zentralizatzea eskatzen duelako; horren salbuespena dira, jakina, ibilaldiak eta bisita gidatuak. Baina kontzertuak, azokak, tailerrak… Arrasaten izango direnez, hara joatea erraztu gura dute erakundeek. Hori dela eta, garraio plan pilotu bat abian dago atzotik, eguenetik, eta zapatura bitartean, Pesa garraio enpresarekin elkarlanean. Horren bidez, ohiko autobus zerbitzua indartu egingo da eta autobusak maizago izango dira. Bi ibilbide izango dira: Bergara-Eskoriatza eta Oñati-Arrasate. Lehenengoan, autobus bat irtengo da ordu laurdenero; bigarrenean, ordu erdiro. Horrez gain, gaueko autobus zerbitzua ere izango da gauerditik goizeko seiak arte. Bono batzuk ere salgai daude, egunez nahi beste bidaia egiteko. Plan pilotu hori joan den astelehenean aurkeztu zuten, eta esan zuten egunotako esperientzia baloratuko dutela, beharbada etorkizunean ere jarraitzeko.

Horrez gain, ibiliko den auto kopuru altua aurreikusita, 3.700 aparkalekutik gora ipini dituzte, gehienak Arrasaten, baina baita inguruko herrietan ere. Joan den asteleheneko aurkezpenean esan zutenez, ez zegoen jakiterik zehazki zenbat auto etorriko den, baina 7.000 inguruko kopurua aipatu zen.

FORMATU HANDIA ETA KALITATEA

Mundumira jaialdia *Euskal Herria* aldizkariaren proposamenetik etorri da, baina Mankomunitateak hartutako ildo berriarekin bat dator. Izan ere, Mankomunitatearen Kultura batzordea orain bi urte sortu zen, Mankomunitatearen plan estrategiko berriaren bidez, eta bere helburuetako bat da formatu handiko eta kalitatezko kultura ekintzak antolatzea. Iaz, Iparraldea Bertan antolatu zuten. Aurten, 1999. urteaz geroztik Pirinioetan antolatzen den Pyrene jaialdi handiaren antzeko bat egin gura zuten, eta aukerakoa iruditu zitzaien *Euskal Herria* aldizkariak egindako proposamena. Batik bat, kalean eta gune irekietan egiteko pentsatuta dago.

Gurean lehenengo aldia izango du kulturen arteko topaleku jaialdi horrek. Mankomunitateko Kultura Saileko arduradunen esanetan, datozen urteotan aukera egongo litzateke jaialdi hau berau antolatzeko, edo antzerako beste batzuk. Orduan, Debagoieneko beste herriren baten antolatzeko aukerak ere aztertuko dituzte.

Busak eta aparkalekuak

AUTOBUSAK
Ekainak 9-11.
- **Bi ibilbide:**
  – Eskoriatza-Bergara eta Bergara-Eskoriatza.
  15 minuturo irteerak.
  – Oñati-Arrasate eta Arrasate-Oñati. 30 minuturo irteerak.
- **Bi zerbitzu ibilbide bakoitzean.**
  – Abebe Bikila linea:
  Ohiko geltokiak.
  – Ben Johnson linea:
  Geltokiak Bergara-Eskoriatza ibilbidean:
  Bergara (Ibargarai), Elorregi, Arrasate (Ospitala), Aretxabaleta (Azbe), Eskoriatza (Estankoa).
  Geltokiak Oñati-Arrasate ibilbidean:
  Oñati (Geltokia), Elorregi, Arrasate (Garibai).
- **Bonoak:** egun bat, 3,50 euro; bi egun, 6,50 euro; hiru egun, 9,50 euro. Egunez, gura beste joan-etorri egiteko.
- **Gaueko autobusak ibiliko dira hilaren 10ean eta 11n.**

APARKALEKUAK
3.753 leku bederatzi gunetan.
- **Arrasaten:** Kataide, Eroski, Ospitala, Laubide, BM-Eskatu, Fagor San Andres, Fagor Arrasate, Euskadiko Kutxa eta Trefasa (2.973 leku).
- **Aretxabaletan:** Copreci (250 leku).
- **Bergaran:** Labegaraieta (280 leku).
- **Oñatin:** Ibarra (250 leku).

Kultura eta natura ibilbide gidatuak

Debagoieneko leku ikusgarrienetariko batzuetatik kultura eta natura ibilaldi gidatuak egiteko modua izango da. Kultura arloko sei ibilaldi antolatu ditu Mankomunitateak: bi Oñatin (Unibertsitatea eta parrokia), bana Bergaran (gune monumentala), Leintz Gatzagan (Gatzaren Museoa), Antzuolan (errotak) eta Arrasaten (Erdi Aroko gunea).

Mendi eta natura ibilaldiei dagokienez, bost daude aukeran: Eskoriatzan, Aitzorrotz gaztelura igoera; Intxorta-Asentzio ibilbidea; Araotz, uraren ibilbidea; Udalatxera igoera eta Kurtzebarrira igoera Urkulutik.

Eskaintza honen guztiaren berri emateko, Mankomunitateko Turismo Sailak informazio postu bat ipiniko du Mundumiran.

Gatz museoa, eskaintzetako bat.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a

Ekainak 10-17

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ANTZUOLA

► ***Alardeak eta Antzuolako Alardea kulturartekotasun garaian*** delako hitzaldia egingo du Juan Antonio Urbeltz folklorista, antropologo eta etnografoak eguenean, hilak 16, Olaranen, 19:00etan.

► **Ondarreko jaietako zozketan,** 745 izan da saritutako zenbakia. Saria da dozena bat txuleta eta dozena erdi ardo botila.

ARETXABALETA

► **Tokiko Agenda 21en** batzarra egingo dute martitzenean, hilak 14, udaletxeko ganbaran, 19:00etan. Herritar guztiendako dago zabalik.

BERGARA

► ***Bergara y bergareses en el 'boletín' de la RSBAP/EAE*** delako liburua aurkeztuko du Emilio Mujika Enekotegi egileak gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:00etan.

DEBAGOIENA

► **II. Patin Gaba** antolatu dute Mondragon Unibertsitateak eta Kilometroak 2005ek eguenerako, hilak 16. Izenematea zabalik dago *kirolak@eps.mondragon. edu* helbidean.

ESKORIATZA

► **V. Txikirri-txikirri mendi ibilaldia** egingo dute etzi, domeka, hildako mendizale eskoriatzarren omenez. 07:00etan irtengo dira Herriko plazatik. Izenematea egunean bertan egin behar da, 06:00etatik 17:00etara, eta 5 euro da. Argibideak, 943 71 43 27 telefonoan.

► **Aste Zapatista** antolatu dute Txiapasen aldeko taldeak eta Gazte Asanbladak. Honako ekintzak izango dira: astelehenean, hilak 13, Renta básica hitzaldia, 19:00etan, kultura etxean; martitzenean, 14, Txiapasko bizimodua hitzaldia, zaharren egoitzan, 16:30ean; eta eguaztenean, 15, *De la calle* filma Inkernu tabernan, 22:00etan. Zapatuan bazkaria egingo dute, eta txartelak salgai daude Inkernu eta Naira tabernetan.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **Haurren Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. Honako egitaraua dute: 10:00etan, herriko txistulariekin kalejira; 12:30ean, dantza saioa Herriko plazan; eta 17:30ean, bigarren saio bat.

ARETXABALETA

► **Kurtzebarri eskolako jaia** ospatuko dute bihar, zapatua. 10:30ean hasi eta 18:30 arte, ume eta gurasoendako jolasak, kirola, musika… izango dira.

► **Ludotekako azken jaia** ospatuko dute eguaztenean, hilak 15.

ARRASATE

► **Arizmendiko Santa Teresa gunean ikasturte bukaera jaia** ospatuko dute gaur, egubakoitza, 17:00etan. Ikasleen emanaldiak, diploma banaketa eta luntxa egingo dituzte.

► **Emakume Txokoko ikasturte amaiera jaia** egingo dute gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 18:00etan.

BERGARA

► **San Antonio auzoko** jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Musika, mus txapelketa, umeendako basurdeak eta poniak, bazkaria, meza… izango dira.

► **Gaztetxearen 5. urteurrena** ospatuko dute egunotan. Gaur, egubakoitza, asanblada eta afaria izango dute; bihar, zapatua, kontzertua; etzi, domeka, tsunamiaren gaineko diaporama, 18:00etan; astelehenean eta martitzenean, malabar ikastaroa eta irratsaio berezia; eta eguaztenean, 15, serigrafia tailerra eta zinema.

ELGETA

► **Eskola Txikien Egunaren** aldeko jaialdia izango da etzi, domeka, Espaloia antzokian, 10:00-17:00.

ESKORIATZA

► **Herri Eskolaren jaia** egingo dute bihar, zapatua, Luis Ezeizako guraso elkarteak antolatuta. 10:30etik 19:00etara, umeen emanaldiak, kirola, bazkaria, musika… izango dituzte.

OÑATI

► **Olaa auzoko jaiak** ospatuko dituzte gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean. Musika, txirrindularitza, umeendako jolasak, auzo bazkaria… izango dira. Bazkarirako txartelak salgai daude Olakua eta Artxubi tabernetan.

ANTZERKIA

ESKORIATZA

► **Umeendako ipuin kontaketa saioa** izango da eguenean, hilak 16, liburutegian, 18:00etan.

► KONTZERTUA

TRES HOMBRES AFROAMERIKAR MUSIKA TALDEA, KONTZERTUAN

Seikotea dira, baina hasieratik, hiru zirenetik, gordetzen dute Tres Hombres izena Madrilgo musikari hauek. Are garrantzitsuago, hasieratik gordetzen duten beste zerbait da erritmo afroamerikarrekiko leialtasuna: funk, blues, soul, acid jazz, rock, swing… Erritmo horiek eta gehiago lantzen dituzte, abesti ezagunen moldaketak eginez, baina euren estilo pertsonaletik pasatuta eta inprobisazioa erabilita. Eta euren nortasuna erakutsiko dute Elgetan egingo duten kontzertuan. Hirugarren diskoa prestatzen ari dira, eta aurreko bi lanek, *Our favorite songs* eta *Sessiones 224-226* izenekoek, honakoen bertsioak batzen dituzte: MC5, Miles Davis, James Brown, Rufus Thomas, Led Zeppelin, Elmore James, ZZ Top edo Bob Marley.

Non: Elgetako Espaloia antzokian. **Noiz:** bihar, ekainak 11, zapatua. **Ordua:** 22:30ean. **Sarrera:** 8 euro, 6 bazkideek.

MUSIKA

ARRASATE

► **Losotros (Arrasate)** taldeak latindar rock emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:00etan.

► **Aitor Ronda (Upfront-Bartzelona), Orlando (Cuzcurrita, Kampera 23) eta DJ Papi (Soraluze)** disko jartzaileek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 00:00etan. Sarrera eta edaria, 6 euro.

► **Des-kontrol eta Social Combat** taldeek joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Euskal jolasen ikastaroa** emango du Arizmendiko Guraso Eskolak bihar, zapatua, San Viator Txikin, 10:00-14:00 ordutegian, HHkoen gurasoendako.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Epi Pérez** margolariak bere lanak erakutsiko ditu bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Olaran etxean.

ARRASATE

► **Emakume Errefuxiatuak** delako erakusketa ipiniko dute herriko zenbait gobernuz kanpoko erakundek hilaren 16an, eguena, Monterronen.

► **Monterrongo margo ikasleek** lanen erakusketa ipiniko dute gaur, egubakoitza, Harresi aretoan, 18:00etan.

BERGARA

► **Bearteko ikasleen** margolan erakusketa bisitatzeko aukera izango da hilaren 19ra bitartean kultura etxean.

ELGETA

► **Fusilatuak Gerra Zibilean** delako erakusketa ipiniko du Aranzadi Elkarteak hilaren 13an, astelehena, Espaloia antzokian. Hil osoan egongo da zabalik.

OÑATI

► **4B Elkarrizketak** arte plastiko erakusketa dago kultura etxean hilaren 20ra arte, egunero, 18:30-20:30 ordutegian. Diego Moyua margolari oñatiarrak erakusten du.

Zinema

ANTZUOLA

■ **FRONTOI TXIKIA**

Mar adentro
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Ekainean efiz da zinema emanaldirik egongo.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Los chicos del coro
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

El gran golpe
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

The eye 2
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Asalto al distrito 13
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Los sexoadictos
17:00, 19:45, 22:30.

Star wars, episodio 3
17:00, 19:45, 22:30.

El reino de los cielos
19:45, 22:30.

Kops
17:30, 20:00, 22:30.

Danny the dog
17:30, 20:00, 22:30.

El cielo gira
19:45, 22:30.

Un rey en La Habana
17:00, 22:30.

Código 46
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Star wars, episodio 3
17:10, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos
17:10, 19:55, 22:30.

Coach Carter
17:10, 19:55, 22:30.

Nuestra música (J.B.A.)
17:30, 20:15, 22:45.

Un rey en La Habana
17:30, 20:15, 22:45.

Hierro 3
17:30, 20:15, 22:45.

Million dollar baby
17:10, 19:55, 22:30.

Arsene Lupin
17:30, 20:15, 22:45.

Sahara
17:20, 20:00, 22:35.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

A good woman
17:30, 20:00, 22:30.

Familia rodante
18:00, 20:15, 22:30.

Primer
18:00, 20:15, 22:30.

A la vuelta de la esquina
17:30, 20:00, 22:30.

La última primavera
18:00, 20:15, 22:30.

Tapas
17:30, 20:00, 22:30.

Perder es cuestión de método
17:30, 20:00, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Un rey en La Habana
16:00, 18:05, 20:10, 22:30, 00:45.

Robots
16:00, 18:05.

El reino de los cielos
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

El último golpe
22:30, 00:45.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:05, 22:30, 01:00.

Cosas que hacer antes de los 30
20:10, 22:30, 01:00.

Star wars, episodio 3
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Un canguro superduro
16:00, 18:05.

Danny the dog
16:00, 18:10, 20:15, 22:30, 01:00.

Million dollar baby
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Los chicos del coro
16:00, 18:05.

Hechizada
16:00, 18:10, 20:20.

Habana blues
20:05, 22:30, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Tapas + Bitter Kas film laburra
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Justa venganza
20:10, 22:10, 00:10.

La intérprete
12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

El reino de los cielos
12:15, 15:45, 18:45, 21:45, 00:35.

Million dollar baby
19:20, 21:50, 00:25.

El internado
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

El gran golpe
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Heffalump
12:15, 16:20, 17:50.

XXX 2 - Estado de emergencia
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Bob esponja
12:15, 16:45.

Un canguro superduro
12:15, 16:10, 18:10.

Kung-fu-sión
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Danny the dog
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Star wars, episodio 3
12:15, 15:30, 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

Robots
12:15, 16:30.

Un rey en La Habana
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

11:14, destino fatal
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
19:30, 22:05, 00:45.

Sahara
20:00, 22:25, 01:00.

Kung-fu-sión
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Robots
12:10, 17:10.

El reino de los cielos
12:00, 16:05, 19:05, 22:05, 01:00.

Tapas
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Un canguro superduro
12:15, 16:10, 18:05.

The eye 2
20:10, 22:10, 00:30.

Star wars, episodio 3
12:00, 16:00, 17:00, 19:00, 20:00, 22:00, 23:00, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:05, 18:15.

No sos vos, soy yo
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Soñando, soñando, triunfe patinando
12:15, 16:00, 18:00.

Heffalump
12:20, 16:30.

Reinas
18:00, 20:10, 22:25, 00:45.

La maldición
20:25, 22:30, 00:45.

20 centímetros
12:00, 17:05, 19:45, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Million dollar baby: ●●●● / La última primavera: ●●● / Tapas: ●●● / La intérprete: ●●● / Mar adentro: ●●● / Reinas: ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

STAR WARS: LA VENGANZA DE LOS SITH

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: George Lucas.
AKTOREAK: Hayden Christensen, Ewan McGregor, Natalie Portman.

Orain dela urte batzuk Euskal Telebistan nahiko ezaguna egin zen abesti batek horrela esaten zuen: "Bukatu da, bukatu da, bukatu da, akabo…". Bada, gauza bera pentsatu izan dut *Star Wars*-en azken partea ikusita. Kostatu da, baina azkenean iritsi da, Lucasek iritzia aldatzen ez badu, behintzat, gehiegi luzatutako saga galaktikoaren amaiera. Duela 28 urte egindako filma oso ondo bazegoen ere, sagaren film berriak egiten ziren neurrian, horiek gero eta gehiago urruntzen ziren film originaletik. Lehen filma erraz ulertzen zen istorio bat zen, ondo finkatutako pertsonaiak zituen eta horiei gertatzen zitzaien gorabeherek istorioa garatzeko balio zuten. Horrela, abentura, umorea eta amodioa bere tokia zuten, osagai guztiak ondo neurtuak zeuden, efektu bereziak ez ziren filmaren izar nagusia, filmaren beste elementu bat besterik ez zen, eta ikuslea ez zen batere aspertzen. Baina, tamalez, denek dakigu teknologia berrien garaian gaudela, filmek gero eta zaratatsuak eta gero eta ikusgarriak behar dute izan, eta azkenean zinema munduan hartzen duten protagonismoa gehiegizkoa izaten da.

Efektu bereziek leku handiegia hartzen dute, filmen iraupena larregi luzatzen dute, istorioaren intentsitate dramatikoa sakabanatu egiten da eta, horrela, ikusleari, edo behintzat ikusle batzuei (hori da nire kasua) ezinezkoa egiten zaigu interesa mantentzea.

La Venganza de los Sith gehiegizko filma da: efektu berezi, pertsonaia eta zomorro gehiegi ditu, eta kontatzen den istorioa nahasiegia da: pertsonaiak alde batera eta bestera joaten dira (ez dute arrasto sakonik uzten), baina ez dakigu zertara joaten diren, eta txarrena dena, ez zaigu askorik inporta. Dena gehiegi luzatuta dago, filmak ia-ia ordubete soberan du, istorioa ez da ondo biltzen, eta biltzen denean beranduegi da. Filmaren azkeneko zatia hobeto dago, intentsitate handiagoa du, baina ez da nahikoa.

Dena den, *La Venganza de los Sith*-ek baditu momentu ikusgarriak, ez dut esango film txarra denik, baina erakusten du saga honekin jarraitzeak ez duela zentzurik.

ANTONIO ZABALA

GERTU Inmobiliaria
Lehen, Imnof3
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

SALGAI

BERGARA
- Erdialdea. 95 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea, despentsa eta bainugela. Duela urtebete berriztatua.
- Bolu. 90 m2. Hiru logela, egongela, sukalde-jangela, bainugela eta komuna. Igogailua. Trastelekua. Berriztatua. Kanpoaldera ematen du.
- 150 m2-ko duplex zoragarria. Sukaldea, egongela-jangela, bainugela bi (hidromasaje eta saunarekin).
- 60 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz berriztatua. 228.385 euro / 38.000.000 pta.

ARRASATE
- 77 m2. Hiru logela, egongela, sukalde-jangela, bainugela bi. Kanpoaldera ematen du. Duela gutxi guztiz berriztatua.
- Erguin. 54 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Denak kanpoaldera ematen du. 191.723 euro / 31.900.000 pta.
- Garaje itxia salgai Roneon. 24,30 m2. Bi autorentzako lekua. Garaje itxia.

ARETXABALETA
- Erdialdea. Bost logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritzea behar du. 162.273 euro / 27.000.000 pta.
- Erdialdea. 50 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Ganbara. Guztia kanpoaldera.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa erdialdean 180 m².
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 50 m². Berritzeko.
- Erdialdea 78 m². Oso ondo.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.
- Bolu 82 m². Garajea.
- Matxiategi 75 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 70 m². Oso ondo.
- Duplexa Bolun 90 m².

Antzuola:
- Hamaika etxebizitza berri.
- 88 m². Garajea. Oso ondo.

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Angiozarren, Soraluzen, Aramaion eta San Juanen.

LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
- Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara.
- Erdialdea 90 m². Berrizteko.
- Artekalea 60 m². Oso ondo.
- Bolu, duplexa 90 m². Garajea.
- Duplexa, erdialdean 116 m².
- Masterreka 69m². Oso ondo dago.
- Martoko 60 m². Berrizteko.
- Elorregi 64 m². Berrizteko.
- Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
- Duplexa, erdialdean 170 m².
- Aranerreka 82 m². Garajea.
- San Pedro 110 m². Berrizteko.
- Txaleta 300 m². Berria.

ANTZUOLA:
- Bustinzuri 88 m². Berria.
- 11 etxebizitza berri.

SORALUZE:
- Ezozi 83 m². Ondo dago.
- Errekalde, duplexa 97 m². Ondo.

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

ARRASATE

KOMERTZIALAK BEHAR DIRA ARRASATE INGURURAKO. AUTOA EDUKITZEA BEHARREZKOA. 666 40 65 19

ARAMAIO

SUKALDE LAGUNTZAILEA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA JATETXE BATEAN. 945 44 50 86

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

ARETXABALETA

EMAKUMEA BEHAR DA JATETXEAN ZERBITZARI JARDUTEKO. 943 71 43 45

ARRASATE

ZERBITZARIA BEHAR DA OKINDEGIAN LAN EGITEKO. 615 78 44 16

ANTZUOLA

JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA, ALOKAGAI EDO SALGAI. 943 78 70 66 635 75 72 71

BERGARA

ZERBITZARIA BEHAR DA. 659 05 63 82

ANTZUOLA

TABERNA ERRENTAN EMATEN DUGU ERRETIROA HARTZEN DUGULAKO. 943 78 70 51

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. 88 m2ko etxebizitza berria salgai. Hiru logela, bi bainugela, terraza eta garajea. 295.000 euro. Prezioa negoziatu daiteke. Saltzeko presa du. 685 78 60 03.

Arrasate. San Andres. Egongela, bi logela eta sotoa. 649 07 96 54.

Bergara. Etxebizitza salgai Ibargarain. 109 m2. 667 73 11 63.

Bergara. Etxebizitza salgai Masterrekan. 70 m2. Terraza. Hiru logela. 699 10 07 27.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Igogailua. Hiru gela eta ganbara ditu. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Apartamentua alokatzen da. 945 29 33 80.

Benidormen, Levanteko hondartzan, apartamentua errentan. 630 41 84 65.

Benidorm. Levanteko hondartzan. Garajea eta igerilekua. Aire girotua. 666 67 06 94.

Donostia. Etxebizitzaerrentan Mirakruzen. Hondartzatik gertu. 615 78 73 08.

Donostia. Etxebizitza errentan abuztuan. 635 71 49 16.

Donostian apartamentua alokagai Kursaal ondoan. Abuztua. 665 73 59 83.

Oñati. Apartamentua errentan. Logela bat. Deitu gauez. 606 53 53 52.

Oñati. Ikasleendako etxebizitza errentan ikasturtean. 943 71 81 06.

Peñiscola. Apartamentua alokatzen da. 945 29 33 80.

Peñiscola. Apartamentua. Hondartzatik gertu. 945 29 33 97 edo 665 73 23 99.

Vera (Almeria). Apartamentua errentan hondartza naturistatik gertu. 657 73 94 25.

Zarautz. Logelak errentan. Erdialdean. 630 71 35 83.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza errentan hartu nahi dugun hiru neska gara, ikasleak. 676 39 01 21 edo 658 73 30 05.

Arrasate. Lau ikasle gara eta etxebizitza baten bila gabiltza. Deitu 18:30etik aurrera (Erik). 659 23 18 12.

Oñati. Etxebizitza errentan hartuko genuke. 665 70 10 57.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. 25 urtetik gorako pertsona behar da. 626 71 96 80.

Arrasate. Logela bat alokairuan hartu nahiko nuke. 19:00etatik aurrera deitu. 627 82 00 25.

Bilbon pertsona bat behar da 05-06 ikasturtean etxebizitza osatzeko. Telefonoa: 659 20 60 49.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Kontzezino kalean. Aritz. 626 67 87 18.

202. EROSI

Arrasate Garaje itxia erosiko nuke. 943 79 33 93.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Olarte kalean. Itxia. 616 70 78 91.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Emakume bat behar da garbiketak egiteko. 615 78 51 07.

402. ESKAERAK

Arkitekto teknikoak lokal komertzialetako eta etxebizitzetako proiektuak eta zuzendaritza egingo lituzke. 655 67 19 44.

Bergara. Umeak zainduko nituzke uztailean. Leire. 617 90 55 82.

Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 659 44 76 75.

Emakume bat eskaintzen da umeak zaintzeko eta abar. 649 59 86 04.

Emakume euskalduna gertu astean bi aldiz bi orduz lan egiteko edo oporraldiak betetzeko. 943 77 16 01.

Mutila gertu lanerako: eraikuntza lanak, lorazain eta abar. 667 80 48 70.

Mutil gazteak edozein motatako lanak egingo lituzke Debagoienean. 676 58 64 99.

Oñati. Bikote batek garbiketa lanak egingo lituzke herriko elkarteetan. Telefonoa: 665 70 10 57.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak. 645 73 04 69.

Ingeleseko eskolak ematen ditut uztailean. 635 73 77 21.

Debagoiena. Neska gazteak uztailean haurrak zaindu edo klase partikularrak emango lizkieke. 655 72 20 67.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 gasolina. 150.000 km. Prezio ona. 943 77 00 34.

Audi A4. 1.9 TDI. 110 zaldi. 1998koa. 645 77 74 65 edo 943 53 36 67.

BMW F-6-50 trail motorra salgai. 17.000 km. Bittor. 656 78 92 19.

Ford Mondeo autoa salgai. 1.8T, 115 ZP. 81.000 km. 685 76 22 13.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Prezio ona. 652 77 71 08.

Mercedes CLK 3200 coupe salgai. 100.000 km. 630 03 96 30.

Mercedes Vito 112 CDI salgai. 180.000 km. 6.500 euro. 665 74 07 02.

Mercedes Vito. 110CDI. Combi. 70.000 km. Prezio ona. 616 81 15 96.

Opel Corsa autoa, SS-AG, 700 euro. 626 11 43 41.

Opel Vectra 2.0 autoa salgai. Beti garajean. 629 43 81 62 edo 609 44 02 38.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki-kamera. Canon 300 EOS. 28-80 mm eta 75-300 mm-ko objektiboak. Arratsaldez deitu. 676 61 67 70.

Inprimagailua. Epson Stil. LQ 300. ESC P2. Orratzekin inprimatzen du. 616 15 63 73.

Logela bateko altzariak: armairua eta 90 cm-ko bi ohe prezio onean salgai. 676 61 70 55 edo 659 76 06 72.

Ordenagailua. 486. 100Mh. 36Mb. 1.5Gb. Prezioa adostuko dugu. 616 15 63 73.

Osintxuko frontoian astelehenero 21:00etatik 22:00etara jokatzeari uzteko asmoa daukagu. Ordu hori hartu nahiko bazenute, deitu. 686 98 73 59.

PDA (agenda elektronikoa). Palm M-130. Outlook, Word eta Excel. Internet eta e-posta. 616 70 78 91.

Skate taula. Brasildik ekarritako skate taula salgai. 619 83 79 51.

Umeen aulkia. Autoan erabiltzekoa (18 kilora artekoa). 30 euro. 616 15 63 73.

806. GALDU

Bergara. Orbea bizikleta galdu dut. 943 76 30 20.

Bergara. Panazko txaketa berdea galdu nuen aurreko astean Ibargarai inguruan. 676 55 03 59.

Bergara. Titaniozko ume betaurrekoak galdu ditut. Masterrekatik Mariaren Lagundia bitartean. 943 76 59 59.

Edozein premiatarako:
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88



Esther Gomez eta **Gorka Izurrategi** ekainaren 11n ezkonduko dira Leintz Gatzagako Dorletako santutegian. Ondoren, Gure Ametsa jatetxean egingo dute bazkaria eta eztei bidaian Karibera joango dira. Zorionak, bikote.

Patxi eta **Virginia** bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Mariaren Lagundiko elizan. Horren ondoren, eztei bidaian Italiara joan dira. Familiakoen partetik, zorionak, bikote!

Antonio Doyague eta **Maria Gonzalez** Bilbon ezkondu ziren 1955eko ekainaren 9an. Urrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, zorionak, seme-alaben eta biloben partetik!

HILDAKOAK

M. Angeles Zabaleta Pierrugues. Arrasaten, maiatzaren 26an. 42.

Jose Fernandez Perez. Bergaran, maiatzaren 26an. 83 urte.

Luisa Fuertes Peñalba. Bergaran, maiatzaren 26an. 73 urte.

Luis Umerez Oianguren. Oñatin, maiatzaren 28an. 84 urte.

Jose L. Atxaga Romaratezabala. Aretxabaletan, maiatzaren 29an. 64.

Sabina Bikuña Markuleta. Aretxabaletan,maiatzaren 30ean. 92.

Maria Sanz Mateo. Arrasaten, ekainaren 1ean. 83 urte.

Luisa Diaz Martin. Bergaran, ekainaren 1ean. 84 urte.

Julia Pardina Altzelai. Bergaran, ekainaren 2an. 90 urte.

Madalena Aranguren Alberdi. Antzuolan, ekainaren 3an. 85 urte.

Angela Elortza Urtzelai. Arrasaten, ekainaren 4an. 91 urte.

Alicia Gonzalez Bueno. Arrasaten, ekainaren 4an. 34 urte.

Jose Mari Iztueta Urdangarin. Bergaran, ekainaren 4an. 71 urte.

Felisa Nuñez San Vicente. Arrasaten, ekainaren 5ean. 81 urte.

Bibiana Garai Lizarralde. Arrasaten, ekainaren 5ean. 91 urte.

Antonio Villar Lizarralde. Oñatin, ekainaren 7an. 59 urte.

URTEURRENA

Jose Antonio Maiztegi Gantxegi

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 10:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Luis Egino Zabaleta

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Natividad Ilarduia Artza

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Florentino Agirrezabal Ondarra



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 12an, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Julia Pardina Altzelai

Cecilio Irizarren alarguna

Bergaran hil zen 2005ko ekainaren 2an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko ekainaren 10ean.

ESKER ONA

Angela Elortza Urtzelai

Txomin Galdosen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2005eko ekainaren 3an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko seme-alaben izenean.

Aretxabaletan, 2005eko ekainaren 10ean.

ESKER ONA

Jose Maria Iztueta Urdangarin

2005eko ekainaren 4an hil zen, 71 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko ekainaren 10ean.

markeline
haurrentzako moda
Herri Lagunak 6, behea
Bergara . Tel: 943 76 05 24

%25
-erainoko deskontuak paseorako kotxeetan!
Aprobetxatu aukera!

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Aknearen aurkako tratamenduak emaitza onak izan ditzake.

Aknea

Gaur AKNEARI buruz idatziko dut. Aknea jende askok jasaten duen arazoa da, baina bereziki 12-13 urtetik 20-22 urtera arteko gazteen artean gertatzen da (lehen esaten zen 20 urte betetzean aurpegiko granoak desagertu egiten zirela, eta zuk hori gertatzea nahi zenuen, baina ez zen horrela izaten. Gero, berriz, ezkontzen zinenean desagertu egingo zirela eta azkenik, ume bat edukitzen zenuenean.

Ni neskatila nintzenean grano asko zituen neska bat ezagutu nuen, eta harritu egin ninduen ezkondutako neska batek granoak edukitzea. Baina kontua ez zen hor bukatu, zeren ezkon bidaiatik etorri zenean ere bazituen-eta granoak. Bosgarren semearekin ere jarraitzen zuen granoak edukitzen. Denbora pasatu da eta aurrekoan Urretxun ikusi nuen, eta markak eta granoak edukitzen jarraitzen zuen.

Aknea gehienetan nerabeen artean eta bi sexuetako pertsonetan gertatzen da, pubertaroan gertatzen da gehienetan eta zergatia ondorengoa da: adin horretan hormona aldaketa asko gertatzen dira, horiek glandula sebazeoak estimulatzen dituzte koipe kantitate handiagoak sortuz; eta horiek ezin direnez kanpora irten infekzio txiki bat sortzen dute. Elikadura ez bada ona (ez dago frogatuta txokolateak, txorizoak, koipeak aknea sortzen dutenik, baina bai arazoa agertzen denean era horretako janariak jateak aurreko arazoa larritzen dutela); aknea desagertzeko eta kontrolatzeko ezinbestekoa da kasu bakoitzerako zainketa konkretua egitea. Ez da gomendagarria azala egoera txarrean lagatzea granoak apurtuz, horrela aknea kaltetu egiten dugulako bakarrik. Jende askok uste du eguzkia hartzea ona dela granoak lehortu egiten dituelako, baina hori ez da horrela; nahiz eta hasieran lehortu egiten direla pentsatu, denbora laburrera txarrera joaten dira. Aukera asko dago marka eta orbainak uzteko azalean.

Ondo eta garaiz tratatutako aknea ia beti desager daiteke, edo, behintzat, zati handi batean desager daiteke.

Nagoreri erantzuna: jaiotzetik daukazun orbana ezin daiteke ez tratamendu ezta kremarekin kendu. Kirurgia ondorengo orbanek badute tratamendua eta oso emaitza onak ematen ditu, ia ez dira igartzen.

Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma



			*Izena Objektu, zer		Ezordu Ile (Bizkaian)		Akuran hartu
			Koaderno Ez eme				
Bizkor Ugaztun basati		Uste, susmo *Deitura					
					Erbioa Erasian, marmarka		
Azkena eta lehena Lore			Norena atzizkia Bi				
				Kontsonantea Ebakiak, zauriak		Tona Zaletasun atzizkia	
Gehiegi, sobera	Izendatu Liburu euskarri						
			Nafarroako herria Musika nota (ald)				Erregela, norma
Animalia ornogabea Atxilotua							
						Roentgen T birritan	
Idi hitz-elkarketan Irentsi			Agiria Sufrea				

BILABILA7





UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

ORGIAN
– Nola antzeman daiteke nor den tolosarra orgia batean?
– (!!!)
– Larrutan bikotearekin ari dena da!

ADIMEN KOEFIZIENTEA
Morroi hau Bordeleko taberna ezagun batean sartu da:
– Aufi! Hau ez duk sinesgarria! 165eko adimen koefizientea diat!
Eta rikarra edaten ari den batek:
– Hori ez duk estonagarria. Niri 164koa nuela esan zidaten.
Biak taula berean eseri eta giza genomaren inguruko azken aurkikuntzei buruz hasi dira hizketan. Instantera neska gazte bat sartu da tabernara:
– 140ko adimen koefizientea eman didate. Hau bozkarioa!
– Aizu —barran zutik dagoen batek—. Niri iaz 139koa segurtatu zidaten.
Eta biak beste mahai batean eseri eta literaturaz hasi dira hizketan. Handik gutxira hirugarren lagun bat sartu da tabernara, urduri:
– 5eko adimen koefizientea omen dut. Ez da sobera, baina uste dut aski dudala ongi bizitzeko.
Berehala norbaitek erantzun dio:
– Lasai, nik 2koa dut eta. Banuen nire antzeko norbait ezagutzeko gogoa.
Biak hala biak mahai batean eseri eta:
– Beraz, zu ere Front Nationalekoa zara?

SOLUZIOAK

K	L	A	K	S	A	T	U
●	I	T	●	A	K	T	A
P	R	E	S	O	A	●	R
●	T	R	I	K	I	N	A
L	A	R	●	I	S	U	●
●	A	I	P	A	T	U	
L	I	L	I	●	R	●	T
●	Z	A	●	R	E	N	A
T	I	G	R	E	●	E	R
●	B	●	A	I	E	R	U
		●	B	L	O	K	
		G	A	U	Z	A	
		●	X	●	E	●	



ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Mundumira
munduko kulturen festa

Mundumirako opariak

Asteleheneko Goienkariko harpidedunendako

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk eta *Euskal Herria* aldizkariak, Mundumira jaialdia dela eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun zaretenon artean, honako opariak zozkatuko dituzte:

- Mundumira jaialdiko hiru kamiseta.
- Euskal Herria aldizkarirako urtebeteko lau harpidetza.
- Euskal Herria aldizkariaren bost pack: lehen urteko aldizkari guztiak eta kamiseta.

Irabazleen izenak ekainaren 13ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn emango dira jakitera.

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

046 zozketa: ekainaren 6a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

Bi sari FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi sari Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- Juanito Untzetabarrenetxea (Elgeta)
- Jose M. Sarasua (Aretxabaleta)

Elgetako ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN ekainaren 11n, TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON junior ikusteko bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- Jose M. Arrondo (Bergara)
- Mikel Sologaiztoa (Oñati)

MOKOGORRI, 6 urtetik gorakoendako puzzle bat.
- Vicente Camacho (Bergara)

047 zozketarako sariak

- Elgetako **ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN**, ekainaren 17n, TXUMA MURUGARREN ‘Nire anaiaren kotxeko argiak’ disko aurkezpenerako bi sari (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).

- **EIBAR-FERROL** futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).

‘Harmailatik’

ASTELEHENA, 13 / **21:00 eta 22:30**

Korrikalari afrikarrak lehian, Oñatiko III. Herri Lasterketan

Antxintxiketan Kirol Elkarteak antolatuta Oñatiko III. Herri Lasterketa jokatuko da zapatuan. Bertan izango dira munduan punta-puntan ari diren korrikalariak. Goiena Telebistak saio berezia egingo du lasterketako irudiekin.



‘Ordubetez’

MARTITZENA, 14 / **13:50 eta 20:30**

Realeko hauteskundeen gaineko mahai-ingurua

Ekainaren 30ean egingo dituzte hauteskundeak Realean, eta dagoeneko hautagaiek hasi dute kanpaina. Denonerreala eta Loturak taldeen eta Miguel Santos hautagaiaren ordezkariak izango dira mahaiaren bueltan.

‘Jaiak 2005’

EGUAZTENA, 15 / **21:30 eta 23:00**

Mundumira, munduko kulturen topagunea baino askoz gehiago

Debagoienean egingo da Mundumira jaialdiaren lehenengo edizioa. Mendi irteerak, musika ekitaldiak, erakusketak... Denetarik izango da hiru egunetan. Goiena Telebistak munduko kulturen topagune izan den festa ekarriko dizue iruditan.

‘Baneki’

ASTELEHENA eta EGUENA / **21:00**

Lehen finalistak ezagutuko ditugu datorren astean

Baneki saioko lehiakideak azken txanpan sartuta daude. Datorren astean, finalean izango diren bi talde ezagutuko ditugu. Gogoratu guztira hiru talde izango direla finalean, Port Aventurarako bidaia irabazteko lehian.

TELEBERRIAK

Eskatu dituzte sei milioi euro Osasuna-Betis partiduagatik

Zapatuan jokatuko dute Errege Kopako finala Osasunak eta Betisek. Final horretako telebista eskubideak Santa Monica Sport enpresak erosi zizkion Espainiako Futbol Federazioari eta enpresa horrek eskatu ditu sei (ia 1.000 milioi pezeta) milioi euro partidua telebistan emateagatik. Telebistaren legearen arabera, partidu hori interes orokorrekoa da, baina TVE, partidua telebistan zuzenean emateko prest dagoen kate bakarra, gehienez 500.000 euro (83 milioi pezeta) ordaintzeko prest dago. Kontua da. Osasuna-Betis partiduak ez duela zirrara berezirik piztu Espainiako zaleen artean.
Partiduaren bezperan, horrelaxe daude gauzak.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Ekainaren 10etik 16ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 10	ZAPATUA 11	DOMEKA 12	ASTELEHENA 13	MARTITZENA 14	EGUAZTENA 15	EGUENA 16
13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Behazulo** 15:00 **Chiloé** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean** 21:30 **Eguzki lore:** Gatz Harana 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Eguzki lore** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Baneki** 12:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 13:10 **Harmailatik:** Debagoieneko Triatloia 13:40 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:00 **Ilunpean** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Filma** 16:00 **Baneki** 16:30 **Jaun ta jabe** 17:00 **Klip@** 17:15 **Behazulo** 17:45 **Debarri:** Aramaio 18:45 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla eta Lazkao Txiki 20:00 **Chiloé** 20:30 **Klip@** 20:45 **Eguzki lore**	11:05 **Filma** 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 12:55 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:10 **Debarri:** Aramaio 14:10 **Eguzki lore** 15:10 **Filma** 16:00 **Chiloé** 16:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 17:45 **Klip@** 18:00 **Baneki** 18:30 **Baneki** 19:00 **Ilunpean** 19:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 20:15 **Jaun ta jabe** 20:45 **Harmailatik:** Debagoieneko Triatloia 21:15 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ilunpean** 15:00 **Eguzki lore** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 **Baneki** 21:30 **Harmailatik:** Oñatiko lasterketa 22:00 **Berriak** 22:30 **Chiloé** 23:00 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Harmailatik** 15:00 **Chiloé:** Thailandia II: Budaren ametsa 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** Iratxo Magikoa 21:00 **Ordubetez:** Realaren gaineko mahai-ingurua 22:00 **Berriak** 22:30 **Ordubetez** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ordubetez:** Realaren gaineko mahai-ingurua 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 **Chiloé** 21:30 **Jaiak 2005:** Mundumira 22:00 **Berriak** 22:30 **Chiloé** 23:15 **Jaiak 2005** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Jaiak 2005:** Mundumira 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 21:00 **Baneki** 21:30 **Behazulo** 22:00 **Berriak** 22:30 **Jaun ta jabe** 23:00 **Behazulo** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
13:20 **Baneki**	15:00 **Filma**	20:45 **Harmailatik**	21:30 **Harmailatik**	21:00 **Ordubetez**	21:30 **Mundumira**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

Errespetatu dezagun natura.

Bai ederra natura!

Animaliak ditut atsegin eta ondo zaintzen ditut, baita txikienak ere.

Ikastolan, errekara zaborrik ez dugula bota behar irakasten diguzue, bestela arrainak hil egin daitezke-eta.

Umeok natura zaindu behar dugula errepikatzen diguzue behin eta berriro, eta zuek?

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2005eko ekainaren 10a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior/ Pailazoak

Nolako zura, halako ezpala. Gure kasuan betetzen da, bai, atsotitza. Mikel Otaegi Txirriren semea da, Kattalin Ansorena Mirriren alaba eta ni Fernando Ruiz naiz, bien aspaldiko laguna. Mikel eta Kattalin ikasten ari dira, bata selektibitatea eta bestea azterketak prestatzen, eta ezin izan dira elkarrizketara etorri.

Noiz hasi zineten elkarrekin lanean?

Otsailean hasi ginen prestatzen eta ideia orokorrak lantzen. Asteburuetan egin ditugu entseguak.

Urduri zaudete?

Bai. Zapatuan Elgetan egingo dugun ikuskizuna gure lehen lana izango da umeen aurrean, Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren estreinaldi mundiala izango da, eta urduri gaude, bai.

Tortolikan etorriko zarete Elgetara?

Ez, autoz joango gara. Tortolika hegazkinaren, Barrebusaren eta Felipe trenaren argazkiak eramango ditugu, hala ere.

Gure zuzendaria Jon Andueza da, Elgetan bizi da eta Aste Santuko oporretan hantxe izan ginen herria ezagutzen. Ezagutzen dugu bidea, eta ez gara galduko. Espaloian izango gara zapatuan, 19:00etan.

Txirri, Mirri eta Txiribitonen errelebua hartu duzue?

Ez. Gu udan ibiliko gara Euskal Herriko umeak alaitzen. Eurek atseden hartu behar dute, eta udako ikuskizunak guk, gazteok, egingo ditugu. Uda gogorra izango dugu, baina oso indartsuak gara eta gogotsu gaude.

Zuen artean ere, Mirri da zintzoena, Txirri bihurriena eta Txiribiton jatunena?

Bai. Besteen berdinberdinak gara gu.

Pertsona berak makillatzen zaituzte zuek ere?

Geuk apaintzen dugu geure burua, nork berea. Txirri, Mirri eta Txiribitonen argazki bana dugu, eta argazkiari begira margotzen dugu aurpegia.

Arropak denda berean erosi dituzue, ezta?

Herentzian jaso ditugu.

Mirri-Tel konpainiarekin merkeagoak dira telefono deiak?

Mirriren barrabaskeria bat da Mirri-Tel ikuskizuna. Segapotoak saltzen dituen denda bat zabaldu du Mirri bihurriak, eta, Txiribitonen laguntzarekin, Txirriri telefonoa saldu nahi dio.

SMSak bidaltzeko segapotoak saltzen hasiko da orain Mirri?

Horixe, teknologian punta-puntako segapotoak.

Abesten ere badakizue?

Bai, bai, eta umeekin ere abestuko dugu, noski. Mirri-Tel ikuskizunak lau esketx motz ditu eta bukaeran esketx luze bat. Baina abestiak ere baditu, noski. Euskal Herriko ume guztiek ezagutzen dituzten kantuak abestuko ditugu guk ere.

Zenbat urte dituzue?

Gazteak gara oraindik. Mikelek 18 ditu, Kattalinek 19 eta nik 24.

"Arropak herentzian jaso ditugu, eta nork bere burua makillatzen ikasi du"

"Gure artean ere, Mirri da zintzoena, Txirri bihurriena eta Txiribiton jatunena; besteen berdinak gara"

"Besteek atseden hartu behar dute udan, eta guk egingo ditugu udako ikuskizunak"

▶ *Euskal Herria / 5 hilabete / Zapatuan estreinaldia*

PIPERRAUTSA

Airean

Bale, Gasteizko legebiltzarrak gainditu du bigarren tapoia. Zelanbait. EA bereizi da EAJtik eta izango du bere talde parlamentarioa. Onartu diotelako. Gero EAk ez dio onartu EBri berea izatea, araudia dela-eta. Ja!

Bigarrenez, penagarria izan da ikuskizuna. Atutxarena ikasgai ona izan zuten, baina ez dute ikasi. Oraindik inork ez du erakutsi, Ibarretxeren taldean, egoeraz jabetu denik. Eta honela iristen badira lehendakari hautaketara 22an, hau da, bi aste barru, dena dute airean. Edo okerrago.

Ibarretxe eta Lopez aurkeztuko dira. Patxik, ezer egin gabe, seguruak ditu 33 boto, 18 bereak eta 15 PPrenak. Ze, ziur nago, popularrek oparitu egingo dizkiote boto guztiak Patxiri ezer eskatu gabe, Ibarretxe kentze aldera.

Ibarretxek, aldiz, seguruak ditu bakarrik 22 boto, EAJrenak. EArekin negoziatzen ari dira. Ondo bidean, 29 boto. EBrekin gero negoziatuko omen dute, orduan 32 boto. Eta azkenik, Aralar konbentzitzen badute, 33 boto. Kasurik onenean, Patxik adina.

Hortik aurrera, etorriko da EHAKri presioa egitea, ez dezan onar abertzale ez den lehendakaririk, eta bla, bla, bla…

Baina, adi! Airean daukate gobernua, eta pitokeriatan ari dira, lasai-lasai. Ibarretxeren lidergoa sendotu beharrean, txikira jokatzen dute, batuketak egin ere egin gabe. Eta, bitartean, lehendakaritza airean daukan honetan, non da Ibarretxe?

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51